



STOP

15

0

REN 22tik APIRILAREN
KARRANTZA-IRUNEA 2007

aeek

euokaitel

KHUABAN
ATHLETIC
DEPT.

MARTXOAREN 22tik
KARRANTZA

* Ekitaldi guztiak Kultur Leioan izango dira

Apirila... euskaraz blai!

hitzaldia
Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendi
"Ume elebidunen gurasoentzako aholkuak"
Apirilak 19, eguena. 18:30-20:00. Doan.



Musika
Oskorri

Desertore
Apirilak 20, barikua. 20:30. 10 euro

bertsosaioa
Andoni Egaña, Xabier Paya,
Jexux Mari Irazu, Onintza Enbeita
Gai jartzailea: Aitzol de Castro
Apirilak 21, zapatua. 20:00. 5 euro



haur antzerkia
Txitxarra eta inurria

Markeliñe
Apirilak 22, domeka. 12:00. 4 euro

antzerkia
Artea
Txalo Produksioak
Apirilak 27, barikua. 20:30. 12 euro



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko kanposantua.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Fede Bilbao. A. M.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
23. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxomoda, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Areetako geltokia (1920), Getxoko Udal Liburutegia.
30. BERBETAN. Ramon Agirre, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Korrika.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskaldunak New Yorken. Oskar Fernandez zutabea.
43. MUSIKA. Getxoko Jazzaldia. Diskoien erreseinak.
44. LIBURUAK. Oteizaren Quosunque tandem euskaraz.
45. KIROLA. Alfredo Olabegoia.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Basilio Astulez, Oiane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Sopelako Laiak taberna.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Bost algortar Kolonbiarako bidean. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Aitor Gorosabel.

Azaleko argazkia: Korrika 2007 Erandion, Asier Mentxaka



30 Ramon Agirre




11 Fede Bilbao

Berbetan

Bere hitzetan: aktorea izatera ausartu zen mutiko lotsatia. Ramon Agirre aktore handiarekin egon gara.



34 Korrikako argazkiak



26 Getxomoda



49 Laiak taberna



54 Aitor Gorosabel

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

- Algortako San Nikolas plaza.....**apirilak 16**
- Erromoko kultur etxea.....**apirilak 19**
- Areetako ambulatorioa.....**maiatzak 8**
- Algortako ambulatorioa.....**maiatzak 14**
- Redentor elizako parkinean.....**maiatzak 15**

Informazioa: 900 303 404 Zatoz odola ematera, ez itxaron!



Alangoeta 8 (Eskol Herreria bidearen bukaera)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egunroa, Xabier Sillbo, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu


Lasterka

Aspaldian Topaguneak, Euskal Herriko Herri Aldizkarien Federazioak (UK erakunde honen partaidea da), antolatuta gure aldizkarietan erabiltzen dugun euskara maila aztertzeke mintegia antolatu zuen. Ibon Sarasolak zeukan mintegi haren ardura eta zoriz aukeratutako aldizkari batzuen euskara maila aztertu zuen. Egia aitortzearen, aldizkariak ez ginen batera ondo atera. Bada mintegi hartan *korrika* berba azaldu zen eta sutan jarri zitzaigun Sarasola jauna, gutxi gorabehera, lema hura asmatu zuena urkatu behar genuela esateraino. Zertarako baliatu *korrika* berba euskaraz beti *lasterka* erabili izan bada?

Korrika berbari jarraiki, *lasterka* ibili ziren gure eskualdeko ehunka eta ehunka euskaltzale AEK-k bi urtean behin antolatzen duen Korrikan. Gu, ohi bezala, antolatzaileen furgonetara igo ginen eta lekukoa eroan zuten lagun guztien erretratuak zuengatu nahi izan ditugu zenbaki honetan. 4

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

jaso dugu

Zuon gutunak, burutazioak.... uk@aldizkaria.biz

BERTSO JENERO

URDIN

1

Lengoaldin ibil nintzen
auskere dala-ta,
Urdinizar uzenez
erexi botata.
Geur, baie, bueltan nator
oinez txaka-txaka,
bertso jeneron ganen
txaloka, eupaka!

4

Bigarren kontu ez da
ez negar, ez luto;
bai Felix bera bere
pozteko moduko:
BBK txapelkete
arranka orduko,
ALBEKO gazte finek
hor dekuz buruko.

2

Lelengo txaloaldi,
eztekot duderik,
jon dan lagun bateri
eskinikotset nik:
FELIX GARAI laguna,
jon zara gazterik,
baie eztu falteko
zure akordurik!

5

Kuadrillan danarik dau:
pantaloik ta gone.
Zelau adore deken,
ta ze gaztek, ene!!!
Itxaso, Arrate, Peru,
Imanol ta Jone,
Maialen batu eta
ze talde errime!

3

Getxon Iberre-Beko
aukiun basetxe,
guk beran ate jo ta
bera beti hantxe!
Makina bat kontuzar,
ixen ziren letxe,
jakin duz beranik ta
oñ handi da hutse!

6

Paiatarrak maisu ta
jardunan porazuz,
bertso-eskolako gaztek
goien pare dakuz.
Felix, gazte honeek zu
gañe brabok dozuz,
da taldeak, zeuk len lez,
pozak emoteoskuz.




[irudia]

ALGORTA, 2007KO MARTXOAREN 30A

Neguaren azken kolpeak / Argazkia atera zenean udaberrian sartuta astebete generaman arren, euria barra-barra ari zuen, atsedean hartu barik. Negu nahiko epela izan da aurtengo; adituen ustez, historiako beroenetariko. Agian, oraindino indartsu dabilela erakusteko erabili zituen neguak bere azken egunak. Aspaldian legez, gure zelaiak, mendiak eta kaleak busti-bustita utzi zituen. Batzuek, behintzat, eskertuko zuten... m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

[publizitatea]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO ANDRA MARI ELIZA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > korrika eta kantari



Algorta, 2007ko martxoaren 26a

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Astelehen batez goizean goizik korrika nintzen aritu badaezpada lagun hartuta hurbilean bi mediku!
Ene, nolako pintak!
Euskaldunon korrikak badauka nahiko meritu,
bi urtez geldi egondakoak martxan ipintzen baditu!

2

Korrika hasi orduko, aldiz, norbaitek hala zioen:
"bertsolariak zerbait kantatu beharko digute hemen"
eta taldeko denak ezezka argi ikusi ondoren,
nik beste denek baino muskulu bat gehiago landu nuen.

3

Nekez osatu omen nituen kilometro eta erdi batzuentzako ezer gutxi da beste batentzat gehiegi!

* Doinua: Zenbat eta neke handiagoa, orduan eta doinu laburragoa

fotografia > Getxoko Jaiak 2006 Photoalbum liburuaren aurkezpena



Unai Elorriaga idazleak idatzitako sarrera edukiko du argazki albumak

Apirilaren 21etik 23ra Algortan antolatuko duten liburu azokan aurkeztuko du Mikel Martinez argazkilariak *Getxoko Jaiak 2006 Photoalbum* liburu. Laz ere, aurreko urteko herriko jaietan ateratako argazkiak albuma osatu eta argitaratu zuen argazkilari getxoztarak. Ekimenak eduki zuen harrera ikusita, aurten 2006ko jaietan ateratako argazkiak gauza bera egitea erabaki du. Edizio berri honen formatua, baina, ezberdina izango da, besteak beste, orrialde kopurua handiagoa izango delako (150 or.). Getxoko jai guztiak agertuko dira: San Isidro, Santa Ana, Neguri Langile, San Lorentzo, Portu Zaharra, San Inazio, San Juan, etab. Mikel Martinezek hainbat ataletan banatu ditu irudiok (giroa, janaria, musika, dantza, photomaton, sua, taldeak eta umeak), bere lana txukuntasunez agertzeko asmoz. Gainera, Unai Elorriaga idazleak egindako sarrera eroango du liburuak. Aurten, beste berrikuntza bat ere egongo da: argazkiren baten kopia eskuratu gura duenak Foto Ricardoren edozein saltokitan egin ahal izango du. 1.000 ale kaleratuko dira guztira eta 12 euro kostako da bakoitza. Argazki koloretsu eta dibertigarriak dira *Photoalbumen* agertzen direnak, gure jaietako giroaren isla azken finean. Merezi dute! ^m



saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



...haria




...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

begizorrotz > “Ongi etorri errutinara”

Gogoetak gure herrietako hormetan plazaratzen dituzte askok

Goizeko seietan iratzargailuko txirrinak jotzen du. Eskua luzatu eta argia pizten duzu. Goizeko seiak. Oraindik ez da eguzkia atera eta zuk lanera joan behar duzu, astelehenero bezala, egunero bezala. Etxean egin beharreko guztiak ziztu bizian egin (arrozua behar den moduan hartzeko denborarik ere ez daukazu) eta kalera irteten zara harrapalada batean. Ilun eta hotz dago oraindino eta, gainera, euria ari du. Bat-batean, argazkian agertzen denaren moduko “pintada” batzukaz egin dute topo zure begiek. “Ongi etorri errutinara”, dio batek. Eta arrazoia daukala konturatzen zara, bizitza osoa asteburuan eta oportetan pentsatzen ematen duzula, errutina horretatik noiz aterako zain. Bestelako aukerak badauzkazu, baina ausardiarik ez. Bihar seietan altxatuko zara berriro. Pentsa, gutxienez, hori dela zeuk eta gehienok egingo duguna. m

geologia > Arrietarako labarretako beta gorria agertu da daborduko

Hondartzaren 500 metro koadro berreskuratuko dira

Sopelako Arrietara hondartzako eraikinak botako zituztela iragarri zutenetik, makina bat aldiz entzun izan dugu hareatzatik Gipuzkoako Aizkorri mendiraino heltzen zen beta gorriaren istorioa. Euskal mitologiatik ateratako kondaira bazirudien ere, agertu da behingoz hainbeste ikusmira piztu duen fenomeno geologikoa, labarrean jaiotzen den harrizko marra gorri-gorria alegia. Behin eraikinak botata, hondakinak txikitzea eta birziklatzea besterik ez zaio faltako Udalarari, lanen lehenbiziko fasea bukatutzat emateko. Bigarrena, berriz, sarbide berriak (oinekoentzako eta txirriindularientzako ibilbideak hirigunetik hondartzako errotondaraino) eta udan hondartzara hurbiltzen direnentzako zerbitzuak edukiko dituen plataforma mugigarria eraikitzea izango da. Horrela, hondartzaren 500 metro koadro berreskuratuko dira. m



[erretratu]

“Gure herriko paisaiek inspiratzen naute, daukagun gauzarik ederrenetakoak dira” dio Fede Bilbao algortarrak

Fede Bilbao > idazlea eta Athleticeko jokalaria ohia

“**Luz blanco amarilla del faro de cabo Billano**”, horrela hasten da Fede Bilbao Algortarraren olerkietako bat. Zortzi liburu argitaratu ditu dagoeneko eta oraindino asko gelditzen zaio idazteko: “*Idazten ez dudanean zerbait faltan dudala sumatzen dut*”. Bi dira bere inspirazio iturriak: “*Alde batetik, maitasun olerkiak daude, logelan bakarrik idaztekoak; bestetik, naturari idazten dizkiodanak, arima eta begiak zabalik ditudala*”. Egunsentia une magikoa da berarentzat, horregatik argitu aurretik etxetik irteten eta paseatzera joaten da egunero: “*Gure eskualdeko paisaiak oso ederrak dira eta gainera goizeko ordu horietan natura biziago dago*”. Bizkarrean urte dezente dituen arren, kilometroak aise egiten ditu. Momentu honetan Athletic futbol taldeari buruzko lan bat idazten dabil, izan ere, jokalaria izan zen lehoien urrezko urteetan: “*Ni Benancio, Zarra, Panizo eta Gainzarekin hasi nintzen, liga eta kopa irabazi genituen urtean; baina handik denbora gutxira hanka apurtu nuen*”. Urruti ikusten ditu garai haiek, hala ere, olerkiak idazteko iturri bezala balio zaizkio. Futbol kontuak asko aldatu dira: “*Lehen kalean jokatzen genuen, horrela sortzen ziren futbolari onak*”. Aurten, kostata ikusten ditu norgehiagokak: “*Galtzen ikustean sufritu egiten dut*”. Dena den, bigarren mailan bada ere, taldea animatzen jarraituko du, sentimendua polita da eta. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



Euskara heltzeko, helduz!

“Getxo udalerrirako hizkuntza politika proposamena (2007-2011)” aurkeztuko du **Bizarra Lepoan** elkarteak eta **Udaleko Euskara Zerbitzuagaz** batera **GEHI-Kirolak** martxan ipini du

Bizarra Lepoan euskara elkarteak hurrengo legealdirako “Getxo udalerrirako hizkuntza politika proposamena” txostena osatu du. Bestalde, Udal Euskara Zerbitzuak martxan ipinitako GEHI-Kirola egitasmoaz arduratzeko hitzarmena ere sinatu du elkarteak. Bide batez, Udalak euskara sustatzeko laguntzetara eta zerbitzuetara zuzendutako zenbatekoak jakinarazi ditu.

Euskaldunak eta euskara ikasten dabiltzanak elkarri ezagutaraztea eta euskararen erabilera sustatzea jardunbide duen Bizarra Lepoan elkarteak, batzuetan bakarrik eta besteetan hainbat eragile eta erakundegaz, hamaika ekimenez arduratzen da: GEHI programak, Bapiruke, EGIZU (Berbalaguna, Sendi...), ikastaroak, etab.

Oraingo honetan euskararen inguruan euren ustez eman beharreko pausoak eta ardatz nagusiak biltzen dituen “Getxo udalerrirako hizkuntza politika proposamena (2007-2011)” aurkeztuko du; “*hauteskundearen harina Getxoko alderdi politikoei euskararen aldeko ekimen eta neurri zehatzak bultzatzeko eskatzeko*” asmoagaz. Euskaltzale eta elkarte ugariaren ekarpenak batu eta egokitu ostean, Bizarra Lepoan izenean sinatu dute txostena. Lanak herrian euskarak bizi duen egoeraren argazkia eskaintzeaz gainera, Getxori dagozkion helburu nagusiak biltzen ditu, oro har: “*Kontseiluak bitartutako Euskara sustatzeko eta Euskalgintza babesteko Akordio Soziopolitikoan jasotzen den*” 3. tipologiagaz bat egin. Era berean, hurrengo



Bapiruke-ko haurrak. Harremanetarako: Euskara Zerbitzua, 94 466 00 10; Bizarra Lepoan, 94 491 43 57

alorretan aldatetak proposatzen dituzte: ordenamendu instituzionalean (sail guztietan normalizazioa), Euskara Batzordean (herri eragileen partaidetza zuzena), ordenantzak, Euskara Plana (plan berria egitea) eta euskararen aurrekontuan (aurrekontu osoaren %2 izatea).

«2003-2007 bitartean 1.250.000 euro bideratu ditu Udalak euskara sustatzera»

Bestalde, Bizarra Lepoanek koordinatu eta sustatuko duen GEHI-Kirola egitasmoa martxan ipini berri du Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak; beste alorretan indarrean dauden GEHI programen antzera, oraingoan “*kirol jardueretan euskararen erabilerrari aukerak zabaltzea*” dauka

helburu. 50 taldetan egindako inkestaren arabera 10 begiraletatik 6 dira euskaldunak, zuzendaritzan %25 baino ez. Azkenik, 36 kirol taldek sinatu dute Udalagaz euskara sustatzeko hitzarmena, eta bakoitzak bere egoeraren arabera.

Halaber, udal arduradunek euskara sustatzeko zerbitzuak eta diru-laguntzak ekarri dituzte gogora: euskara ikasteko (getxoztar, udal langile, merkatar, begirale eta abarrentzat), aisialdiko begirale ikastaroetarako, errotulo komertzialak euskaratzeko, ekitaldiak euskaraz aurkezteko... Bestalde, itzulpen zerbitzua eta aldi bereko interpretazio zerbitzua ere ezin ahaztu. Horietara guztietara azken legegintzaldian 1.250.000 euro bideratu ditu Udalak eta 2007an 161.000 euro zuzenduko ditu. m

Fadura Institutuan Automoziozko trebakuntza gela berria ipini dute



Fadura Institutuko automoziozko trebakuntza gela berria

Orain dela gutxi ipini dute martxan Fadura Institutuan trebakuntza gela berria, aretoa automoziozko teknologia berrietara egokitutako baliabideak egokitu dago. Gela eta lantresnak Bizkaiko Foru Aldundiaren Lan eta Trebakuntza sailak emandako finantziarioagaz eskuratu dituzte. Erakundearen Lan Sustraiak programaren bidez lortu dute laguntza, izan ere, programa horrek “Lanbide Heziketaren hobekuntzaren bidez enplegua sustatzeko asmoa” du oinarri. Helburu hori betetzeko “berrikuntzak eragiten dituzten bitarteko teknologikoen erabilera sustatzen du programak, hala lan-ekipoetan, nola profesionalak eman behar duten zerbitzuan”.

Fadurako arduradunek azaldu dutenez, gaur egun automozioan erabiltzen diren berri-

kuntza teknologikoetan trebatzeko eta prestatzeko baliabide didaktikoak osatuta dago trebakuntza gela berria; hau da, autoek erabiltzen dituzten hainbat sistema erreproduzitzen dituzte, berbarako: gasolina eta diesel motorren elikatze sistemen kudeaketa elektronikoa, ABS balazta sistema, elektrizitatea eta elektronika, CAN BUS komunikatze sistemak...

Hala, gela eta ekipamendu horiei esker Fadurako institutuko Automozio sailak duen Erdi Mailako hezkuntza arautu (A eta D ereduak) eta profesionalen etenbako formakuntzarako eskaintza indartzen eta zabaltzen ditu. Era berean, Goi Mailako hezkuntzarako (A eta D ereduak) eta etorkizuneko beste hainbat eronka batzuetarako ere oso lagungarri izango zaie trebakuntza gela berria. m

MAIDAGANEKO PASABIDEA URTE AMAIERAN LURPERATUKO EI DUTE

Bizkaiko Garraio Partzuergoak onartu egin du Maidaganeko pasabidea lurperatzeko eta Ibarbengoako geltokia eraikitzekeo proiektua, baina lanak noiz hasiko diren ez du zehaztu. Getxoko alkate Iñaki Zarraok aurreratu duenez “lanak urte amaieran hasiko dira”. Lana egiteko epea 30 hilabete ingurukoa dela adierazi dute Partzuergotik eta proiektu osoaren aurrekontua 34,7 milioi eurokoa.

MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDENEN DEKALOGOA

“Medekotasun egoeran dauden pertsonen dekalogo” argitaratu du Getxoko Udalak. Aurreko urtean zehar Gizarte Zerbitzuetako Berdintasun sailaren ekimenez 100 bat herritarrek garatutako gogoeta prozesuaren ondorio da Dekalogo, eta han jaiotako hausnarketak eta aldarrikapenak biltzen ditu. Eskaera nagusiek erankunde publikoen parte-hartze eta konpromiso handiagoagaz lotura dute. Mendekotasun egoeran bizi diren zaintzaileen (gehienak andrazkoak dira) egoera hobetzeko zaintza tarteak lanaldi eta aisialdiagaz bateratzeko pausoak eskatzen dituzte, edota mendekotasun egoera bizi dutenen burujabetza handitzea, esaterako, muga arkitektonikoak deuseztuz. Dekalogo egiten jardun duen taldeak udalerrian mendekotasun egoeran dauden pertsonen gaineko ikerketa egitea proposatu du, Udalak oneritza eman ei du.

SEMAFOROETARAKO 105.000 EURO URTEAN

Getxoko Udalerrian dauden 550 semafoeren mantentze lanetarako, konponketarako, 24 orduko zerbitzua izateko, etab. eguneroko, astero, hileroko, hiru hilean behin eta urtero egiten diren mantentze lanetara 105.000 euro zuzentzen ditu Getxoko Udalak.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak


Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltzeritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regarizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

A L E R G I A



CRISTIAN AMEZAGA
MEDIKU ALERGOLGOGA

A S M A
ERRINITISA
URTIKARIA
KONJUNTIBITISA

MEDIKOSTA

IMO-SANTAS-MAPFRE
ALGORTAKO ETORBIDEA 96
48991 ALGORTA
94 460 98 45

Bakerako

50 ideia ematen dituen gida argitaratu du Udalak

EHUko GEUZ Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitate Zentroagaz elkarlanean plazaratu du Getxoko Udalak "Getxo: 50 ideia bakerako. Bake-Kultura eta Gatazken Eraldaketari buruzko Gida". Getxoko alkate Iñaki Zarraoaren esanetan "biztanleak sentibilizatu eta inplikatu nahi ditu gidak; horretarako Bake Kultura eta Bitartekotza Komunitarioa garatzen duten eta gure eguneroko bizitzan aplikatu daitez-

«Herritarrek ekarpenak egin ahal izateko txartela ere badu Gidak»

keen ideiak eta urratsak proposatzen ditu". Badira urte batzuk Udalak eta GEUZek elkarlanean dihardutela bizikidetzak baketsuaren alorrean, eta ekimen horren beste pauso bat baino ez da gida. Bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko egindako ikerketak, informazioa, bideak, proposamenak, hartu beharreko konpromisoak... azaltzeaz gainera gidak herritarrek parte hartzeko tartea ere eskaintzen du txartel batzuen bitartez; getxoztarrek Bake Kulturaren inguruan egin dezaketen ekarpenak jasotzeko balio dute txartelok eta Udalaren Komunikazio arlora bidali beharko dira (www.getxo.net). m

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Belen del Rio > Emaus Gizarte Fundazio GGKEko kidea
"Gure kontsumoak eurengan ondorio zuzena du"



Belen del Rio

Emaus GGKEak martxo amaieran Bidezko Merkataritzaren Astea antolatzen duen Erromon, Getxoko beste 13 bat elkartegaz eta Udaleko Garapenerako Lankidetzaren arloagaz batera. Emauseko kide Belen del Rio azaldu du zertan datzan Bidezko Merkataritza.

—Zein izan da ekimen horren helburua?

—Kontsumo arduratsu baten alde herritarren portaera aldatzea da helburu nagusia. Bidezko Merkataritza kontsumo arduratsu baten parte bat legez aurkeztu gura dugu. Lehenengo, nazioarteko egoera ezagutzera ematen dugu, batez ere merkataritzarena: ekoizleek, nekazariak eta esku-langileek bizi duten egoera azaldu, emakumeak arreta berezia emanez, eurak direlako baztertuak. Ostean, jendea sentibilizatzen, kontzientziazatzen, herritarrek kontsumo arduratsura hurbiltzen ahalegintzen gara. Kontziente izan behar dugu gure kontsumoak eta erosketak bakoitzak haiengan eragin eta ondorio zuzena duela, kaltegarri ez izateko egin dezakeguna azaltzen dugu: elkartzuna adierazi, elkarkidetasunez erantzun. Erromoko astea hezkuntza zentroetara hurbiltzeko ere baliatu dugu, epe luzeagorako ekimenak egiteko; eta ekainean (hilak 4-9) Algortan II Bidezko Merkataritza Astea antolatuko dugu.

—Berez zer da Bidezko Merkataritza?

—Bidezko Merkataritza batez ere dendengatik da ezaguna. Dendak baino gehiago da, mugimendu bat da; salaketa eta sentibilizazio mugimendua; hori jende gutxiagok ezagutzen du. Kontsumo arduratsu baterako baliabidea da. Hori jakitera ematea oso garrantzitsua da: etikoki eta solidarioki kontsumitu behar dugula adieraztea, merkataritza injustu bat badela lau haizeetara zabaltzea. Herritarrek kontzientziazatzen mugimendua da, hegoaldeko herrialdeetan pertsona ekoizleek, nekazariak, esku-langileak edota industrian lan egiten dutenek bizi duten egoera injustua eta salagarria dela jakinaraztea, esplotazioan bizi direla. Bidezko Merkataritzaren produktuek baldintza batzuk betetzen dituzte: umeen ez esplotazioa, gizon-emakumeen arteko berdintasuna, soldata eta lan baldintza duinak, ekoizleak epe luzeagorako konpromisoa, diruaren zenbateko bat aurreratu... Ekoizleek betebeharrak dituzte, adibidez, irabazien zati bat komunitateetan hobekuntzak egiteko zuzendu.

—Arduratsuak izateko nondik has gaitezke?

—Produktu askoren jatorria eta ekoizpen baldintzak ezagutzera gaitza da; esaterako ehungintzarena, arroparena, eta hor kontsumitzen eta xahutzen dugu diru gehien. Baina badira oinarriko produktuak: kafea, kakaoa, txokolata... oro har horietara bideratzen du Bidezko Merkataritzak diru gehien. Ezez-

«Bidezko Merkataritza ez dugu kontsumismoa bultzatzeko erabili behar»

agunak diren produktuak ere badira: juka, anakardo, palmito, panela azukrea, kinua, onddo deshidratatuak, Palestinako kuskusa... Baina ez dugu Bidezko Merkataritza erabili behar kontsumismoa bultzatzeko, erosketak kontzienteki egitea lortu behar dugu. Beharrezko produktuak modu solidarioan erosteko aukera badago eta horri jarraitzea da kontua, eta gure kontsumo maila jaitsi behar dugula ulertzea. m

Irakurgaiak plazara, begi aurrera!
Liburu Azoka hilaren 20tik 23ra egingo da



Liburudenedek plazara ateratzen dute euren jeneroa Liburu Azokan

Liburu Azokaren urteroko hitzordua dugu apirila, eta aurtengo ekitaldia hilaren 20tik 23ra egingo da Algortako Geltoki plazan. Goizez (11:00-14:00) eta arratsaldean (17:00-21:00) liburuak %10eko beherapenagaz erosteko aukeraz gainera, lantegiak, ipuin-kontalariak, kale-ikuskitzak... gozatzeko aukera egongo da. Getxoko 11 liburutegia eta liburutegiaren ekimenez antolatzen den Azokak urtero gai nagusi bat aukeratzen du eta horren inguruan egokitzen ditu ekitaldiak eta Azoka bera. Aurten Zirkua Mundua aukeratu dute, beraz, zirkua-pista bihurtuko da plaza lau egunez. Esther Ma-

estre eta Iratxe Unzurrunzaga ipuin-kontalariak *Cuentos pulga* (hilak 21, 13:00) eta *Sentimiento* (hilak 22, 13:00) kontaketa egingo dituzte. Apirilaren 23a Unescok Liburuaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen Cervantes, Shakespeare eta Garcilaso de la Vegaren heriotza data eta Vladimir Nabokoven jaiotza eguna kontuan hartuta; egun horretan egingo dute Getxoko ikasleek jendaurreko irakurketa. Horrez gainera, Azokak iraun bitartean tokiko argazki bildumaren erakusketak egingo da ikusgai. Halere, batez ere irakurtzea eta zelanbait erostea da egin beharrekoa liburuak bizi daitezten! m

NAZIOARTEKO DANTZA EGUNA OSPATUKO DUTE GETXON

Dantza Getxo kultur elkartearen ekimenez Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko du Getxok hilaren 29an. Goizean (11:30) Getxoko dantza eskoletako irakasleek sortutako hainbat koreografiagaz osatuko da egitaraua eta San Nikolas plaza izango da topalekua. Ostera, arratsaldean, "goi mailako euskal dantzariak ekimenez berriki estreinatuta diren lanak" dantzatu dituzte Dantzaldia Galaren barruan Getxo Antzokian (19:00, sarrera 9 euro, 3 euro elkarte-kideentzat).

IBERIARREN KULTURA BATZEN DITU AREETAKO ERAKUSKETAK

Areeta Geltoki plazan paratu duten "Iberoak. Erroma aurreko gure zibilizazioa" erakusketak ibiltariak iberiarren (K.a VI eta K.a I) historia, bizimodua, ohiturak, ekonomia, elikadura, janzkera... islatzea du helburu. Hala, iberiar kulturagaz lotutako 200 pieza baino gehiago daude ikusgai apirilaren 24ra arte. Bestalde, "La Caixa" Gizarte Ekintzak Getxoko Udalagaz elkarlanean antolatu duen erakusketak da.

GABRIEL-GABRIELLE GETXO ANTZOKIAN

Gaitzerki antzerki taldeak *Gabriel-Gabrielle* lana taularatuko du hilaren 21ean, zapatua, Getxo Antzokian (20:00, sarrera 6 euro). Gaitzerdik antzerkiaren duen lanak testu barrokoa du, garrantza eta kritikoa. Protagonista zalantza beteriko pailazo xeber bat da, berebiziko zerbait falta duena, zirkua hain zuzen.

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

Mendibile Jauregia > Bizkaiko txakolinaren etxea

Tradizioa eta modernotasuna modu ezin hobean uztartzen ditu Mendibilek

Martxoaren 29an ireki zituen bere atea Leioako Mendibile Jauregiak, edo gauza bera dena, Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen egoitzak. Zaharberitutako baserri ikusgarria da, antzinakotasuna gaukotasunagaz uztartzen jakin duena. Gure txakolinaren etxea izateaz gain, hainbat erabilera gehiago edukiko du Mendibilek.

Eraikinaren jatorria ezezaguna bada ere (baserriaren lehenbiziko jabeak nortzuk izan ziren ere ez dakite), jauregia XVII. mendearen azken aldera eraiki zutela uste dute askok. Bere arkitektura ezaugarriek hori ondorioztatzen dutela diote behintzat. Hiru mendeko historia horretan une garrantzitsuak bizi izan ditu; azkena, Bizkaiko txakolinaren etxea bihurtu denekoa.

Eraikinaren zaharberritzeak modernotasunaren elementu batzuk erantsi ditu, tradizioa eta arkitektura garaikidea modu ezin hobean uztartzen dituen. Aldi berean, baserria definitzen duten elementuak gorde ditu, hain adierazgarria den arku bikoizduna esaterako. Barruko aldean, berriz, edertasunari ez eze, erabilgarritasunari ere garrantzia eman zaio, museo eta Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen bulegoak (bilera-gela, dastake-



Bizkaiko txakolinaren historia eta ekoizpena azalduko ditu Mendibile Jauregiako museoak

tak egiteko aretoa...) bertan egoteaz gain, inguruko enpresa zein erakundeentzako Business Center-a ere izango delako Mendibile.

Horrez gain, jauregiak jatetxea edukiko du, Jose Miguel Gallastegi sukaldariaren ardurapean. Bere irudia oso teknologikoa da, altzairu herdoilezinezko egituraz baliatu dira-eta haren sostengurako. 250 pertsona hartzeko lekua dauka jantokiak; beraz, posible izango da ezkontzak, jaurratzeak, enpresa-bilerak, produktu aurkezpenak, eta abar bertan egitea. Bestalde,

etorkizunean terraza ere irekiko dutela adierazi dute. m

Ordutegiak

- **Txakolinaren museoa**
Martitzenetik domekara
11:00-14:00 / 17:00-20:00.
- **Gidatutako bisitak euskaraz (aurretiaz hitzordua eskatuta)**
Martitzenetik barikura: 12:00-18:00.
Zapatuetan: 12:00-18:00.
Domeketan: 12:00etan.

Apirila euskaraz blai

Puntako bertsolariak, Oskorriren kontzertua, *Artea* antzezlanana... eta beste **hainbat ekitaldi!**



Apirilaren 20an *Desertore* diskoa aurkeztuko du Oskorrik Leioan

Apirila euskaraz blai egitasmoa antolatuko dute hil honetarako Leioan. Ikaste-txeentzako ekintza bereziaz gain, herritarrentzat ere programa zabala osatu dute ekimenaren arduradunek. Hortaz, apirilaren 19tik 22ra arte euskarazko makina bat ikuskizunetara jotzeko aukera edukiko dugu.

Lehenbiziko egunean, apirilaren 19an, hitzaldia eskainiko dute Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendik, ume elebidunen gurasoei aholkuak emateko. Apirilaren 20an, berriz, Oskorri talde entzutetsuak emanaldia eskainiko du Auditoriumen. Honetan, talde bizkaitarrak *Desertore* laneko doinuak joko ditu.

Zapatuan, hilak 21, punta-puntako bertsolariak taula gainean ikusteko aukera edukiko dugu. Besteak beste, Egaña eta Xabi Paya

txapeldunek botako dituzte bertsoak. Bestalde, antzerkiak ere bere tartea edukiko du: 21ean, *Artea* obra ezaguna ikusteko aukera egongo da eta, 22an, umeentzako *Txixarra eta inurria* antzeztuko du Markeliñek. Ez ezazu aukera hau gal! m

Ekitaldiak

- **Hitzaldia:** Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendi. *Ume elebidunen gurasoentzako aholkuak*. Apirilak 19, eguena. 19:00.
- **Musika:** Oskorri. *Desertore*. Apirilak 20, barikua.
- **Bertso-saioa:** Andoni Egaña, Xabi Paya, Jexux Mari Irazu eta Onintza Enbeita. Apirilak 21, zapatua. 20:00.
- **Antzerkia:** Txalo producciones. *Artea*. Apirilak 21, barikua. 20:30.
- **Umeentzako antzerkia:** Markeliñe. *Txixarra eta inurria*. Apirilak 22, domeka. 12:00.

TXAKURREN GOROTZAK KONTROLATZEKO BRIGADA SORTU DUTE

Berdeguneean zein lorategietan txakurren gorotzak batzearen garrantziaz jarduteko 14 pertsona kontratatuko ditu Udalak. Abereen jabeek udal araudia bete dezaten martxan ipinitako kanpainaren neurrietako bat da brigada. Parkeetan jolastan duten umei animalien hondakinek ekar diezaiaketen arriskua ikusita, bizilagunak informatu gura ditu Udalak.

BIRZIKLATZEKO PAPER GEHIAGO BATU DUTE

Urteko lehenbiziko bi hiletan 2006an baino %30 paper gehiago batu dela diote udal ordezkariak. Euren ustez, hazkunderaren arrazoi nagusia edukiontzik berrietan datza. Hori dela eta, sastarrontzi berri gehiago ipiniko dituztela jakinarazi dute. Laster, esaterako, 150 edukiontzia ipiniko dituzte udalerrian zehar eta zaharrek baino tamaina handiagoa edukiko dute. Pilak batzeko ontzien kopurua ere handitu gura dute.

SAN BARTOLOME AUZOA BERRITUKO DUTE

San Bartolomeko kaleak eta aparkalekuak hobetzeko lanak arden hasiko dituzte. Proiekturik garrantzitsuenaren bertan eraikiko duten Altzaga parkea izango da, 17.000 metro koadrokoa. Horrez gain, Joaquín Achucarro eta Basañez kaleak konponduko dituzte. Gainera, 150 etxebizitza eraikiko dituzte auzoan, horietatik 30 babes ofizialekoak (Artatza kalean egingo dituzte).

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Eskola
Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

[erandio]

Leire Calzada > Berbalagun egitasmoaren koordinatzailea

“Sukaldaritza merke eta sinplea euskaraz ikasteko aukera eskaintzen du Berbotsek”

Etxetik alde egindakoan askok daramagun dieta ez da inolaz ere gure amarenera hurreratzin. Gainera, lehen jatekoa egiten ematen zuten denbora tartea luxua da gaur eguneko bizimoduan eta beste gauza batzuk egiteko erabiltzea gurago dugu. Hori guztia kontuan hartuta, sukaldaritza ikastaroa eskaintzea pentsatu du Berbotsek Erandion Euskaraz taldeak. Asko dira mota honetako eskolak, baina hau euskaraz da.



27 urtetik gorako zortzi bat emakumek osatzen dute taldea

Berbalagun proiektuaren barruan Berbotsek Erandion Euskaraz taldea antolatzen ari den tailerren artean, sukaldaritza da egunotan aipagarriena. Gaur egun, ez daukagu ez denborarik ez gogorik eskeratzean denbora ugari emateko eta askotan aurretik egindako produktuak erosten ditugu; horiek, baina, ez dira freskoak bezain osasuntsuak eta onak izaten. Arazo horri irtenbidea eman nahian edo, gastronomiaren artean oinarritzko pausoak emateko tailerra antolatzea erabaki du Berbotsek. “Erandioko Udalak eta emakumeen elkarteak antzeko tailerrak antolatu dituzte, baina beti gaztelaniaz. Esparru hori landu barik geneukan Berbotseko berbalagunek, horregatik, euskaraz antolatzeko erabakia hartu genuen”,

argitu du Leire Calzada Berbalagun egitasmoaren koordinatzaileak.

Eduarne Fano sukaldari profesionalak ematen ditu eskolak Bekoa ikastetxean eta martitzen zein egunetan elkartzen dira, 19:30etik 21:30era. “Edukitzen ari garen esperientzia positiboa ikusita, datorren ikasturtean ikastaro luzeagoa antolatzeko pentsatzen ari gara, gainera orain dauzkagun ikasleek animatuko liratekeela esan digute”.

Zortzi dira Edurneren ikasleak, andraz-

koak eta 27 urtetik gorakoak. Denetarik ikasten dute bertan, “baina sukaldaritza merke eta sinplea eskaintzen dugu”. Besteak beste, kafe flana, arrautzagaz zein oilaskoagaz egindako krotetak, makailoa, pintxoak eta oilasko frijitua dira landutako platerak.

Ikasturtea amaitu arte beste ikastaro batzuk ere antolatuko dituzte Berbotsekoek; ardao dastaketarena esaterako. Udaberriean, gainera, asteburuko irteerak egingo dituzte berbalagunakaz. m

Kanpomartxo jaia

Apirilaren 22an neguari agur esan eta udaberria pozarren hartuko dute erandioztarrek



Urtero legez, euskara nagusi izango da ospakizunean

Apirilaren 22an, beste behin ere, Kanpomartxo jaia ospatuko dute Erandioko Santimami auzoan. Horrela, bertako baseliazaren inguruan burutuko dituzte Berbotsek Erandion Euskaraz elkarteak daborduko prestatu dituen ekitaldi guztiak.

Goizeko 11:30ean hasiko da jaia, herriko dantza taldeek eskainiko duten emanaldiagaz. Eguerdian partean, berriz, Uribe Kostako zein Bizkaiko beste eskualde batzuetatik etorritako bertsolariek euren doinuak alaituko dituzte Santimamiko inguruak. Bertan egongo dira, besteak beste, Gorka Ostolaza, Itxaso Paia, Onintza Enbeita eta Peru Vidal. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute leku berean. Arratsaldean, 17:00ak aldera, Kepa eta

Roberto bikotearen trikitixa doinu herrikoiak edukiko ditugu entzungai. Ordu berean, umeentzako antzerkia eskainiko du Xirika Zirkusek. Azkenik, jai guztietan bezala, erromeria egongo da. Hitzordua 18:00etan izango da, Luhartz taldeagaz. Gainera, egunean zehar umeentzako jokoak eta sorpresak egongo dira.

Aspaldian hartu zuen Berbotsek Kanpomartxo antolatzeko ardura. Bizkaiko makina bat herritan neguari agur esateko eta aro berria hasteko egiten zen ospakizuna da Kanpomartxo. Eguraldi ona eginez gero, 500 bat lagun batu ohi dira, euskara oinarri hartuta, Erandioko jaietan. Galduko al duzu? m

www.berbots.org

6.000 EUROKO SARIA FILM LABURREN JAIALDIAN

Apirilaren 23an amaitzen da Erandioko IV. Film Laburren Jaialdian izena emateko epea. EAEko lehiaketarik garrantzitsuenetakoa da Erandiokoa (iaz, Oscarretan izendatutako Borja Kobeagak parte hartu zuen) eta guztira 6.000 euro banatuko dituzte sarietan. Laburmetraia guztiek joan den urtean egindakoak izan beharko dute eta Erandioko Irudi eta Soinu ikasleek euren lekua edukiko dute.

ENPRESENTZAKO PARKE BERRIA ERAIKIKO DUTE ASTRABUDUAN

300 enpresentzako lekua edukiko du Astrabudua eta Leioa artean eraikiko duten 92.966 metro koadroko parke berriak. Hain zuzen ere, metro geltokiaren ondoan ipiniko dute gune berria. 200 bat eraikin eta 1.000 aparkaleku edukiko ditu. Bulegoek 3.586 metro koadroko azalera beteko dute eta gainerako 66.394 metro koadroko industriarako erabiliko dira. Era berean, berdeguneak edukiko ditu enpresaguneak (4.207 metro koadro). Inbisa taldea izango da proiektua aurrera eramateko ardura edukiko duena.

URDANETA KALEKO HOBETZE LANAK HASI DITUZTE

Eguraldia dela-eta, aurreikusita zegoena baino beranduago hasi dituzte Urdaneta kaleko hobetze lanak. Lanek irauten duten artean, kalea itxi beharko dute eta, ondorioz, inguruko kaleetako trafikoaren noranzkoa aldatu. Hortaz, Txorierrri, Benjamin anai eta Anton Fernandez kaleak noranzko bakarrek izango dira eta Ramon Rubial kalea, berriz, noranzko bikoia. Behin lanak amaituta, autoentzako 4 metroko bide bakarra eta 2,80 metroko zein 3 metroko espaloiak edukiko ditu Urdanetak. Alde batean, gainera, arbolak landatuko dituzte.

IRATI moda gaztea opariak
Torre 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Basolanak
• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

LUBERRI
Basolanak S.L.

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

bai **R**

Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

APIRILEAN HASIKO DA HONDARTZAKO FUTBOL 7 TXAPELKETA

Apirilean hasi eta ekainaren 17an amaituko da Athleticek Arrietaran (Sopela), Ereagan (Getxo) eta La Arenan (Muskiz) antolatuko dituen futbol 7 txapelketa. Izena ematen duten taldeen kopuruaren arabera, Arrigorri (Ondarroa) ere jokatu beharko dituzte partida batzuk. Domeka goizean izango dira norgehiagokak. Finala Sopelako Arrietaran izango da.

GAZTEENTZAKO ESKALADA IKASTAROA SOPELAN

Apirilaren 14an, 21ean, 28an eta maiatzaren 5ean gazteei zuzendutako (14 eta 30 urte bitartekoentzako pentsatuta dago) eskalada ikastaroa emango du Sopelako Gazte Informazio bulegoak. Eskolak herriko errokodromoan eta Santamariñen izango dira. Ikastaroaren prezioa 20 eurokoa izango da eta parte hartzeko udalerrian erroldatuta egon beharra dago.

Informazio gehiago: ojj@sopelana.net

ANDERSEN IDAZLEAREN IPUINAK LIBURUAREN ASTEAN PROTAGONISTA

Apirilaren 16tik 22ra Sopelan egingo den Liburuaren Astearen Andersen idazlearen ipuinak izango dira protagonista. Hasiara ekitaldia, beraz, umeentzako ipuin idazlearen inguruko erakusketa izango da. Erakusketa jendearentzako irekita egongo da Hall Kulturalan. Egun berean, umeentzako hainbat ekitaldi egongo dira Kultur Etxean. Apirilaren 22an, beriz, *Andersen ahatetxo itsusia* istorioa kontatuko du ipuin-kontalari batek, 18:00etan, Kultur Etxean ere bai. Ekitaldi horretarako sarrerak Hall Kulturalan eskuratu ahal izango dira. Horregaz guztiagaz irakurketa eta liburuen sustapena egitea da Sopelako Udalaren helburua.

Hazkunde demografikoa

Erroldan izena emandako **12.500 biztanle** edukiko ditu laster Sopelak



Hilero 50 pertsona gehiago erroldatzen dira Sopelan

Laster, erroldatutako 12.500 biztanle edukiko ditu Sopelak, jatorrizko udalerriaz lotura apurto gura ez duten pertsonen kopurua kontuan hartu barik. Imanol Garai alkatearen esanetan, azken horiek urte pare bat behar dute herrira egokitu eta erroldan izena emateko.

Azkenaldian, hileko 50 pertsonatan hazi da populazioa udalerrian, beraz, eskualdeko gainerako herrietako hazkunde baino handiagoa da Sopelakoa. Igoera hori udalerrian bizi-kalitatearen isla dela uste du alkateak eta pozik agertu da, besteak beste, proiektu berriak martxan jartzea eta zerbitzu gehiago

eskaintzea ahalbidetuko dielako. Horrez gain, Sopelan bizitzea erabakitzen dutenen adina nabarmendu du: *“Udalerriz gaztea gara, seme-alaba txikiak dauzkaten bikote mordo-gaz”*.

Hain zuzen ere, herriko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen kopurua urtero haziz joan dela azpimarratu du Garaik. *“Joan den urtean, esatenako, urte biko umeentzako plaza kopurua handitu behar izan genuen, momentu hartan geneuzkan hiru gelakaz nahikoa ez zelako”*. Horrela, lau gela ireki behar izan zituzten eta joera hori mantenduko dela uste du Sopelako alkateak. m

Nahia Andres > Oinutsik kontsultako podologo

“Gizartearen **hipokresiaren isla** dira oinak, ez direnez ikusten ez ditugu jagoten”



Informazio gehiago eskatzeko edota hitzordua egiteko: 94 404 74 20 edo 625 70 55 86

Sopelako metro geltokiaren ondoan ireki zuen, joan den azaroan, Nahia Andres podologoak Oinutsik kontsulta. Gaztea da oso, baina sutsua ere bai, eta ez da bere ametsa gauzatuta ikusi arte geldirik egon. Hasiara batean, erizaintza ikasi zuen EHU, baina horregaz nahikorik ez eta Madrilera joan zen Podologia ikastera. Buelatutakoan, bere negozioa Sopelan jartzen saiatzea erabaki zuen. *“Bankuak bisitatu, kredituak eskatu eta hementxe nago! Ez nuen ni euribor jauna ezagutzen...”*, azaldu du erdi txantxetan gazteak. *“Lehen burdindegi bat zen hau. Argi piloa sartzen da eta nik argiztapen naturala maite dut”*, nabarmendu du leihoak seinatuz eta horiek berak ipini behar izan zituela kontatu. Egia esateko, oso kontsulta polita dauka Nahiak, berezia eta koloretsua. *“Hemen etxean bezala santitzen naiz. Nire txokoa egin dut kontsultaren atzeko partean...”*.

Ireki berri duen arren, bezeroen aldetik ezin dela kexatu onartu du. *“Ez dut publizitaterik egin eta jende piloa etorri da. Ahoz-ahoz zabaldu da berria. Nire bezeroak Plentziatik, Barrikatik, Algortatik, Erromotik eta Sopelatik bertatik datoz gehienbat”*. Jendea pozik dagoela uste du podologoak eta beste leku batzuetan bezeroagaz 10 minutu besterik ematen ez duten bitartean, berak behar beste denbora (ordu erdi, ordubate...) eskaintzen diola azaldu du. *“Kalitatea eta etxeko tratua ziurtatzen dut nik”*.

Azkenaldian gazte mordo laguntza eske joan zaiola nabarmendu du. *“Zergatik? Betiko kontua: moda. Zapatak puntan, tatkoiak... Eurekaz aberastuko naizela esaten diet nik. Harrigarria da moda zein saknatua den batzuentzat. Oinak gure gorputzaren euskaria direnik ez gara kontinuatzen eta udan bakarrik eskaintzen diegu merezi duten arreta. Gizartearen hipokresiaren isla da hori, ez denez ikusten...”*. m

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

EKITALDI UGARI LIBURU ASTEAREN BARRUAN

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, Liburu Astea antolatu dute Berangon hilaren 23tik 27ra. Hainbat ekintzetan parte hartu ahal izango dute Berangoetako kultur etxera hurbiltzen direnek. Ipuin kontalariak, tailerrak, ipuin-musikatuak eta beste gauza asko izango dira ume zein nagusientzat, adibidez, *Dejame que te cuente*, *Baobab* eta *Kezkamuselak* espektakuluak, beste askoren artean. Ekintza guztiak arratsalde izango dira Kultur Etxearen aurrean.

BERANGOKO GAZTEEK ASTEBURU SOLIDARIOA ANTOLATU DUTE

Guatemalako emakumeekin lanean dauden Berangoko gazteek asteburu solidarioa antolatu dute apirilaren 28 eta 29rako. Goizetik hasiko da jaialdia larunbatean, gaztelekuko lagunek antolatutako tailer eta jolasekin. Horrez gain, PTM gobernuz kanpoko erakundearen mahaia egongo da egun osoan zehar, eta nahi duenak, honek aurrera eramaten dituen proiektuei buruzko informazioa eskuratu ahal izango du. Gainera, Guatemalako produktuak salgai egongo dira. Jailadiari bukaera emateko, ginkana ez-sexista egingo da herrian zehar. Lortzen den dirua Guatemalako emakumeentzako eta eskola bat antontzeko izango da.

EGONALDIK BERMEON ETA ELANTXOBEN

Irteera berezia antolatu du Kultur Etxeak apirilaren 20tik 22ra. Bermeora eta Elantxobera joango dira gaztelekuko eta ludoklubeko 40 lagun. Bertan makina bat ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute: jolasak, tailerrak... Hauetan guztietan Elkartasunaren ideia landuko da, izan ere, hori da aurten Berangoko gazteak aurrera eramaten ari diren proiektu gehienaren ardatza. Horrez gain, Bermeoko museo berrira hurbilduko dira.

Zure publikitatearen haren
Zure publikitatearen haren
Zure publikitatearen haren

94 491 13 37

Javier Garcia > Berangoko Txirindulari Elkarteko presidentea

“Gazteek ondo pasatzea da gure ustez garrantzitsuena”



Javier Garciak futbolaria porrokatua ere badela aitortu digu

Korrika eta presaka heldu da Javier Garcia hitzordura, izan ere, azken boladan gauza asko ditu egiteko. Bere laugarren urtea da Berangoko Txirindulari Elkarteko lehendakari bezala, nahiz eta bera futbolaria izan. Orain dela 7 urte sortu zen taldea eta gaur egun 48 korridore ditu. Javik argi dauka zein den euren helburua: “Ondo pasatzea da garrantzitsuena; betebeharrak bakarrik entrenamenduetara etortzea da”. Filosofia horrekin, Euskal Herriko talde handiena izatera heldu dira.

«Apirilaren 29an txirindularien jai handia egingo dute Berangon»

Apirilaren 29rako txirindulari jai erraldoia antolatu dute: “Ibilaldi baten antzekoa izango da, baina oinarrian txirindularitza egongo da”. Bizkaiko beste eskola asko egongo dira bertan “Guk gazte nahiko ditugu taldean; jaialdiaren helburua beste talde batzuentzako txirindulariak bilatzea eta bizi-

kletaren mundua ezagutaraztea da”. Horretarako, Moreaga parkearen inguruan hainbat ekitaldi egongo dira egun osoan zehar: Betizu taldea, munduko TrialSin txapelduna, kontzertuak... Gainera, herri martxa antolatu dute Berangotik Getxora, adin guztietako txirindulariak parte har dezaten: “Jendea etortzera animatu nahi dut, oso egun polita izango da familiarrean edo lagunartean ondo pasatzeko, adin guztientzako ekintzak egongo dira, txirindularitzarekin zerikusirik ez dutenak ere bai”. m

Ekintzak

- Munduko TrialSin txapelduna
- Betizu taldearen emanaldia
- Orbea eta Euskaltelek antolatutako tailerrak
- Berango-Getxo martxa herrikoia
- Haurrentzako jolas-parkea
- Bizkaiko txirindulari eskolen karpa erraldoia
- Gaiteroak eta fanfarreak
- Txosnak
- Mayumana taldearen emanaldia

Javier Fuertes > Troka Abenturako arduraduna

“Ekintzak umeentzako bakarrik direla uste du jendeak, baina ez da horrela”



Informazio gehiagorako: www.troka.com edo 94 677 42 65

2000an hartu zuten Troka Abenturakoek Gorlizko aterpetxea kudeatzeko ardura. Orduetik, turistei lo egiteko lekua eskaintzeaz gain, naturagaz zerikusia daukaten kirol ekintza bereziak (tirolina, kanoak, urpekaritza, eskalada...) antolatzeko lana hartu dute. Javier Fuertes, “Txapas”, da bertako arduraduna eta abenturazko turismoari gure gizartean merezi duen lekua emateko beharrea dabil buru belarri. “Gero eta jende gehiagok aukeratzen ditu mota honetako oporrak eta, horregatik, gure eskaintza hobetu gura dugu. Hori dela eta, elkarte bat sortu dugu EAEn honetan jarduten dugun 15 bat enpresek. Gure erronka nagusia orain, gure jardueraren arautuko duen dekretua ateratzea izango da”.

Gorlizko aterpetxeak hainbat ekintza antolatzen ditu urte osoan zehar: surf, bodyboard, kanoak, urpekaritza, eskalada, tirolina, arku jaurtiketa, orientazioa... “Egun bakoitzeko ekintza bi antolatzen

ditugu normalean; kanoan doan, esaterako, ondoren urpekaritza ikastaroa egiteko aukera dauka”.

Sei urtetik gorakoek har dezakete parte, adinaren arabera egokitzen dute-eta programa. “Aste barruan, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak etortzen dira eta asteburuetan taldean ez datozen 25-30 urteko turistak

«Ekintzen programa adinaren arabera egokitzen dute»

dira. Sei urteko umeak hartu izan ditugu, baina baita 73 urteko nagusiak ere. Azken horiek mendiko lasterketak egiten zituzten. Sinestezina!”. Beraz, asteburuetan denetarik aurki dezakegu aterpetxean. “Jende askok pentsatzen du umeentzako bakarrik dela, baina ez da horrela. Promozioaren aldetik ahalegin handia egiten ari gara, jendeak hona etorri eta ondo pasatzeko aukera daukala jakin dezan”. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

[albuma]



Getxomoda 2007

Ohiturari amaiera emanaz, lekuz aldatu eta Areetako Maritimora eroan dute aurten Getxomoda. Jendez lepo egon zen aretoa jaialdiak iraun zuen bi egunetan. Gu lehenengoan egon ginen eta hantxe diseinugile gazteen proposamenak (Ainhoa Galdos, Jessica Iturrieta, Saioa Morales...), euskal arropagile ezagunen modeloak (Marta Teheran, Ian Mosh, Jota mas Ge, Estibaliz Tijero...) eta Mirian Ocarizen 2007-2008ko negurako bilduma ikusi genituen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





AREETA, 1920
Argazkia: Getxoko Udai Liburutegia

Areetako tren geltokia

Gutxiak jakingo dizuzue: Areeta eta Bilbo lotzen dituen trenbidea 1887an zabaldu zen eta garai hartan egunero batzaz beste 1.654 bidaiari garratzen zituen. Bospasei urte beranduago Plentzia eta Areeta lotu zituen zatia egin zen. Ordura arte (cowboy pelikulerakoen antzekoak izan behar zuten) diligentiak erabiltzen zituzten herri batetik bestera joateko. Goiko argazkian Areetako tren geltokia 1920 aldera ikus dezakezue. Bertan Eusebio Muro azaltzen da, bera zen orduan Bilbo-Plentzia trenbideko burua.

[berbetan]

Gutxi gorabehera Antzerkiaren Nazioarteko Eguna zen Ramon Agirre (Donostia, 1954) telefonoaren bestaldean topatu genuenean. Antzokietan ondo trebatutako gizona, kamera aurrean egiteari ere ez dio muzinik egin, pantaila handirako nahiz txikirako. Hala, Agirrek aktoregintza aldarrikatu du, berriketaldiaren hasieran, bere lanbide bakartzat, interneten barra-barra topa daitezkeen curriculumak eskuzabalagoak diren arren: antzezlea ez eze, idazle eta margolari izendatu dute espezialistek. Berak ez du ukatu, eta bide batez musikari modura zeozer egindakoa dela jakinarazi digu. Artista, berba bakarrean esateko. Baina jarduera horietan guztietan zaletasun hutsetik harago ez doala dio Agirrek apal. Antzezpenean izan ezik, noski. Aintzat hartu dugu berak esandakoa, baina doala aurretik zaletasun oparoa dugula donostiar honena: poesia eta antzerki libururen bat edo beste dauka kaleratuta, pintura erakusketaren bat ere antolatuta. Balio beza ondoko elkarrizketak Agirreraren erretratu txukuna osatzeko. Eta hala moldatutako margoari ezar diezaiozun, izenburutzat, honako hauxe, protagonistaren baimenaz beti ere: *Aktorea izatera ausartu zen mutiko lotsatia*.

Ramon Agirre

Hamaika pertsonaje

Testua: **Unai Brea**

—Euskal Herriko beste antzezle ezagun asko bezala (Elena Irureta, Ane Gabarain, Klara Badiola...) garai bateko Antzerti eskolak emandako lehenengo promozioetatik ateratakoa zara zeu ere...

—Bai, halaxe da. Ni aktore izango nintzela, edo izan nintekeela, oso berandu konturatu nintzen. Antzerkia gustatu, beti, txikitatik. Neba-arreba asko ginen baina guztien artetik amak ni eramaten ninduen, antzerkira joaten zenean (aitari ez zitzaion gustatzen). Zaletasun handia, bai, beti gustatu izan zait asko, baina aktore izan nintekeenik burutik pasa ere ez, nahiko berandu arte.

—Eta noiz konturatzen da norbera, aktoregintzarako dohainak dituela?

—Ez dakit. Ni, akaso, konturatuko nintzen dohainak izan nitzakeela, baina lotsatia naiz eta, nola ausartuko nintzen ni horretara? Burutik pasa ere ez. Gainera, gure inguruan ez zegoen aktore jenderik

garai hartan. Astronauta izatea bezala: bai, oso polita behar du, baina hau ez da hemengo kontua. Eta gero, ikastaro batzuk egiten hasi, hurbiltzen hasi konturatu gabe, eta begira... Nahiz eta lotsatia izan, teknika pixka bat eskuratuz gero posible da, konturatzen zara lotsa ez dela eragozpena.

“Aupa Etxebeste!-k erakutsi du euskarazko zinema egin daitekeela”

—Beharbada nire adinaren erruz daukadan irudipen okerra da, baina esan daiteke ETBko *Bai horixe!*-k, euskara irakasteko saio gogoangarri hark. egin zintuela ezagun?

—Badakizu: ezagun-ezaguna izateko modua telebista izaten da, ikus-entzunekoa, jende askorengana iristen da momentu berean. Ordurako gu antzerki dezente eginda geunden, edo hasita behintzat,

baina... Oraindik ere *Bai horixe!* erabiltzen da euskaltegietan, beraz, batzuek hori besterik ez zuten ikusiko, nire lanetik.


—Diru behar hutsagatik egiten den lan horietakoa izan zen hura?

—Ez, polita zen. Guk ondo pasatzen genuen, eta gainera gauza berria zen. Orduan hasi ginen gure lehenbiziko xoxak

irabazten; ez dakit nola bazkaltzen, afaltzen eta gosaltzen genuen, baina bizitzeko ematen zigun.

—Egia esan lan guztiak egiten dira dirutruk, lana gustuko izan ala ez. Baina gero eta gehiago aipatzen dira lan-baldintzak aktoregintzan eta halako ogibideetan. Lehen bohemioagoa zen?

—Bai. Berriagoa zen, eta ez genuen asko begiratzen zenbat irabazten zen. Zerbait



irabaziz gero pozik, baina ez genion begiratzeko. Nahiko erromantikoa zen, bai.

—**Eta zer zioten gurasoek?**

—Ez dakit sekula erabat onartu zuten. Ni arkitektura ikasten hasi nintzen eta urte baten faltan nengoela holako txorakerietan hastea, ba pentsa... Gero, urtetan esan zuten: “Bai, hau ondo, baina bukatuko duzu, ezta? Total, ez zaizu asko falta...”. Urteak pasa ahala ahaztuz joan ziren. Nik ere, hasieran, pentsatzen nuen: “Ondo pasatzen dut honekin, halako denbora sabatiko bat hartuko dut antzerki kontuekin, eta gero ikasketak bukatuko ditut”. Baina gero lan egiten hasi eta...

—**Hamaikatxo pelikulan ibilitakoa zara. Sarritan ailegatzen zaizkizu zinematik deiak?**

—Hara, azkar iritzi zitzaidan lehenengoa, eta geroztik ia urtean behin egin dut pelikularen bat.

—**Sekundario deritzon hori zara zu...**

—Ia beti sekundario, batzuetan *terziario* eta *kuaternario* ere bai. Egia esan pelikula askotxotan parte hartu dut, beharbada 30etik gora, eta guztietan egin dudana denbora neurtuz, ez da oso luzea izango. Beno, papel majo batzuk egin izan ditut...

—**Aupa Etxebeste!-koa da majoena? Hau da, protagonismo handienekoa?**

—Bai. Beste batzuk ere izan dira, garapen pixka bat behar zutena, baina bai, protagonista hau.

—**Bada, ematen du Aupa Etxebeste!-kultzadatxoa-edo eman diola euskal zinemari...**

—Bai, hainbat urtetan pelikularik egin gabe eta bat-batean, euskal zinema dei dakioketena -jendeak gauza askori deitzen die euskal zinema baina, hori, nor bere aburuaz- berriz agertu. Hamahiruren bat urte izan ziren euskaraz egindako zinemarik gabe, eta hau egin zen eta gainera txukun. Ez da erraza, pelikula bat txukun egitea oso zaila da. Txarteldegietan ere oso ondo ibili da, eta Goyatan irabazteko zorian, eta beste jaialdi batzuetan irabazi ere bai, Italian eta... Berriz haste moduko

bat izan da. Ekoizleek dirua irabazi dute, jendeari gustatzen zaio... Erakutsi da posible dela. Gero, asmatzea edo ez... Baina posible da, eta beharrezkoa nire ustez.

—**Badago Euskal Herrian euskal aktore-entzako lan merkatuak?**

—Badago. Eta gainera, konturatzen hasi behar dugu antzerkian ikusleria bat ere badagoela. Ez da handia izango, baina badago, eta hori geuk ere elika dezakegu. Zineman, berriz, aurrekontuak neurri

aritzera. Horiek gaztetako kontuak dira, nik ez dut sekula irudikatu neure burua aktore moduan Madrilen, ezta arrakastarik handiena edukita ere. Niretzat beti izan da joan-etorri kontu bat.

—**Euskal aktore batzuen aurpegia sano ezagun bihurtu duten euskarazko telesailetan gutxi agertu zara, ezta?**

—*Bi eta baten* egon nintzen, eta geroztik, azken urteetan, oso telebista gutxi egin dut, arrazoi askorengatik. Beharbada ez

“Antzerkian ere egiten dira atseginak ez diren lanak”

batetik aurrerakoak dira, baina tira, egin diren azken hiru pelikula hauek, nik uste, amortizatuko egingo dira Euskal Herrian, eta gero hemendik kanpora ateratzen badira... Konturatu behar dugu egin daitezkeela pelikulak gure merkatuak.

—**Antzerkian zabilta gehien. Lapikoa betetzeko ematen du?**

—Jateko orduan duzun gustuaren arabera, zenbatentzako lapikoa den... Nik azken hogeitaz urteetan ez dut beste ezer egin eta bizirik nago. Lanik gabeko jendea ere badago, ofizio guztietan bezala, denontzat ez dago. Momentu onak eta ez hain onak izan ditzakezu. Pazientzia eduki behar da, hori ikasi egiten da.

—**Hogei urte marka polita da. Esaten da -estatistika zehatzik inoiz kaleratu ez den arren, dakigunez behintzat- Madrilen**

zegoen niretzako pertsonaje egokirik, eta nik ere batzuetan ezezkoak eman ditut. Askoz telebista gehiago egin dut hemendik kanpo, hala suertatu da.

—**Zuen lanbidean ohitura izaten denez, noiz edo noiz ibiliko zinen lan bat baino gehiagotan aldi berean...**

—Ez zait gehiegi gustatzen lan asko edukitzea, presaka batetik bestera, baina batzuetan egin beharra dago. Saiatzen naiz tamainan egiten, neurritz. Batzuetan gutxi ere izaten da, baina tira.

—**Eta ohikoa izaten da eskaintza bat baino gehiago edukitzea mahai gainean? Zer egin halakoetan?**

—Bateratu ezin daitekeena bi antzezlan dira. Behin edo tokatu izan zait, eta aukeratu beharra dago, eta batzuetan ondo aukeratu dut. Beno, niri, aukeratzen du-

“Edozein herrialdetako aktorerik onena Robert de Niro bezain ona da”

hara-hona dabilela Espainiako estatu osoko aktore eta ikus-entzun mundu horretako jende piloia, tabernatan eta halakoetan lanean, aukera baten zain...

—Ni joan egin naiz Madriler, zerbait egitera, telesailen bat-edo. Lana aurretik adostuta beti, ni ez naiz joan lan baten zain gotera eta bitartean beste zerbaitetan

danean, beti ondo iruditzen zait; baina emazteak esaten dit: “Zuk dirutarako daukazun usaimena... zero patatero!”. Beti bat hartu eta beste utzi, eta beste horrek arrakasta, diru aldetik behintzat. Baina nik pentsatzen dut ikuspuntu artistikotik beti asmatzen dudala. Gero, beste batzuetan ere tokatu izan zait aukeratu beharra.

Orain dela gutxi, adibidez, Milos Formanekin hitz egin nuen, ea *Goya's ghost* pelikulan parte hartzeko aukera neukan. Joan nintzen Madriler, egin nituen bi elkarrizketa, bat Milos Formanekin, eta poz-pez atera nintzen: “Seguru eman-go didala!”. Eta hala izan zen, pertsonaje txiki bat neukan baina pentsa zer lekutan. Aldi berean, *Kaukasiar kreazko borobila* antzezlanean nenbilen. Dena eginda neukan: saioak, jantziak... Gasteizko emanaldi-data mugitu zen, eta pelikularen errodate egunarekin bat egin. Ezin izan nuen egin, egun bateko lana zen nirea. Azkenean, behintzat, Formanekin egon nintzen, eta hori daukat kontatzeko. Holako gauzak gertatzen dira, bai.

—**Telebista eta antzerkia batera egitea ei da ohikoa...**

—Hori bateratzea ez da zaila. Telebista

egunez egin, eta iluntzean korrika eta presaka joan antzokira...

—**Telebista lapikoa betetzeko eta antzerkia norberak gozatzeko?**

—Hala esaten da baina ez dakit, telebistan ere gauza politak egon daitezke. Egia da diru gehiago irabazten dela, baina... Gainera, antzerkian ere egiten dira oso atseginak ez diren lanak.

—**Kontuak kontu, diruari ere begiratuko zaio aukeratzeko orduan...**

—Derrigorrez begiratu behar, baina lehentasuna den ez dakit. Norberaren egoeraren arabera ere izango da. Ni saiatzen naiz behintzat lehenbiziko lerroan ez jartzen hori. Musu truk ere egiten ditut lanak. Lehen esan dudana: gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko ailegatzen bazaizu...

—**Hollywoodeko izar askok ez darabilte benetako izena, artistikoa baizik. Zu, berriz, Ramon Agirre zara. Euskal He-**

rrian dozenaka lagunek edukiko dute izen hori...

—Hemen bada izen artistikoa erabiltzen duen baten bat, baina hori AEBetako kontua da gehienbat. Frantzian ere, esate baterako, ez dut uste asko dagoenik. Ergela iruditzen zait hori. Nik ez daukat Hollywoodekoen inbidiarik. “Munduko aktorerik onena” eta halakoak esaten direnean... Gezurra. Hor daukazu argentinarrak, frantziarrak... Nik beti esan dut edozein herrialdetako aktorerik onena Robert de Niroren mailakoa dela, seguru. Turkiako aktorerik ez da ezagutzen eta ez dakit dagoenik ere, baina bat baldin badago, hango onena Robert de Niroren mailakoa izango da. Leku guztietan daude aktore onak. Niri, behintzat, amorrua ematen dit AEBetako txorakeriak; ez dut ikusi hango azken urteetako zinema, edo oso gutxi. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefona.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31




Heldu korrikari, heldu...

Korrikari heldu genion, baina amaiera ere heldu zitaion. Eskualdera goizean goiz sartu zen, baina ez zen euskaltzalerik falta izan iluntasuna argitzeko. Geu ere, zuon antzera, parte hartu genuen eta lekukoa eroan zuten guztiak eta giroa jasotzen ahalegindu ginen. Zer da, baina, korrika? Bi mila kilometro baino gehiago, lasterka, Euskal Herri osoan zehar (atzerriko zenbait lekutan ere bai), gauez eta egunez, eten barik karraderan, ume zein edadeko, gazte eta heldu lekukoa eskuz esku, euskarari heldurik. Korrika, beraz, euskararen herria eraikitzea da.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







zineeskola

Oskar Fernandez

Euskal Herria eta zineklubak (III)

Hirurogeita hamargarren hamarkadan zine klubek zabalkuntza handia izan zuten. Gune hauetan hitza eta iritzia ematea, forumean parte hartzea alegia, arrisku gabeko ekintza intelektuala eta kulturala zen eta honek diktadura bortitza eta izugarri hartan hainbat eta hainbat gaztek askatasunerako lehenengo urratsak jorratzea ahalbidetu zuen. Bizkaiko lurraldeari dagokionez eta egin zuten lanagatik, Basauriko "Jaiki Zine Kluba" eta Barakaldoko "Paules Zine Kluba" aipatu behar dira halaberrez. "San Sebastian Zine kluba" 1956. urtean sortu zen, baina gogor lan egin eta gero 1962. urtean desagertu zen. "Irungo Zine Kluba" k 1959. urtean zabaldu zituen ateak. Bere lan taldean oso izen ezagunak eta ospetsuak topa ditzakegu, besteak beste: Oteiza, Basterretxea eta Larruquert. Gipuzkoako Zine Klubak Federazioak 1978. urtean 26 talde batzen zituen. Iruñean, 1957. urtean "Lux Zine Kluba" Jesus Konpainiaren eskutik sortu zen. Zine klub honek 1985 arte emanaldiak antolatu zituen. Iparraldeko lehenengo zine kluba 1957an Baionan sortu zen: "Foto Zine Club Basque" zuen izena. 1973an desagertu egin zen. Azkenik, ikus dezagun zenbat zine klub zeuden Hego Euskal Herrian 1984. urtean: Araban 5, Nafarroan 13, Bizkaian 22 eta Gipuzkoan 24. Bestalde, gaur egun eta Bizkaian gai honi dagokion egoera irudikatzen du "Fas Zine" webgunera jo dugu (<http://www.cineclubfas.com>) eta ematen duen informazioaren arabera, hurrengoak dira zineklubak: "Basauri Social Antzokia", "Teatro Barakaldo", "Arriola Kultur Aretoa", "Elorrio" eta Getxoko "Zine Kluba". Beraz, izugarriko aldaketa gertatu dela garbi dago. 4

Euskaldunak New Yorken

Basque Film & Media Arts jaialdiak euskal filmak erakutsi ditu Robert de Niroren aretoetan

Honezker **AEBetik** bueltan egongo dira hainbat euskal zine zuzendari, izan ere, martxoak azken arnasaldia ematen zuen egunetan (hilak 28-20) ospatu zen New Yorken Basque Film & Media Arts jaialdia. Laaki enpresaren ekimenez, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta (100.000 euro), Bilboko Udalak babestuta (150.000 euro) eta EIKEN ikus-entzunezko enpresen klusterraren laguntzagaz antolatu dute lehenengoz eta jarraipena emateko "asmoagaz" zine jaialdia hori.

Antolatzaileen esanetan "bertoko sortzaileek zuzendutako zine lanak zabaltzea da jaialdiaren helburu nagusia". Filmen emanaldiak batera, ekoizleen arteko batzarrak egiteko eta euskal zine sortzaileen hitzaldiak emateko baliatu dute jaialdia eta egonaldia.

«**Serraren *The Backwoods*; Aupa Etxebeste; Eutsi!; La Pelota Vasca, Airbag...**»

Hala, Manhattan auzoko Robert de Niroren jabetza diren Tribeca aretoak (zine independienteak ekoiztutako lanak ematen dituzte bertan) izan ziren jaialdiko egoitza nagusia. 13 bat euskal film eskaini zituzten, besteak beste: Koldo



Koldo Serra

Serra algortarraren *The Backwoods*, *Eutsi* (A. J. Gorritiberea), *Agian* (A. Basterra), *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (F. Bernues eta M. Gabilondo), *Aupa Etxebeste!* (T. Esnal eta A. Altuna), *El síndrome de Svensson* (K. Sojo), *La Comunidad* (A. de la Iglesia), *La pelota Vasca* (J. Medem) *Airbag* (J. Bajo Ulloa), *La distancia* (I. Dorronsoro)... Kimuak programako hainbat film labur ere eskaini zituzten, berbarako Oscarretan izendatuak izan diren *7:35* (N. Vigalondo) eta *Eramos pocos* (B. Cobeaga). m

Ez galdu > Tropical Malady

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** apirilaren 20a, barikua • **Ordua:** 22:00 • **Zinema Paradiso**



Cahiers du cinéma aldizkari ospetsuak film hau 2004. urtean egindako pelikularik onena zela esan zuen. Istorio honen zuzendaria eta gidoilaria Apichatpong Weerasethakul zinemagile eta arkitektoa da. Chicagoko Arte Institutuan Zuzendaritzaren Arte Ederretako Masterra egin zuen. Film labur eta dokumental batzuk egin ondoren hauxe izan zen zuzendu zuen lehenengo film luzea, Canneseko Nazioarteko Zinemaldiaren Epaimahaiaren saria lortu zuena. Film honek Keng gudari gaztearen bizitzaren pasarte bat agertzen digu. Bere bizitza zoriontsua da, maitasuna ederra da, gauak erakaragarriak dira eta airean zerbait magikoa dabil. Baina egun batean bat-bateko desagertzen bat gertatzen da eta gertakizun honek protagonista oihanera eramango du...

Jazzaldia, uztailak 4-8

Dagoeneko badauzka musikariak autengo Getxoko XXXI. jazz jaialdiak




Bebo Valdes aitaren eskutik ikasi zuen Chuchok pianoa jotzen

Getxoko XXXI. Europar Jazzaldiaren egitaraua prest dauka Kultur Etxeak, eta dagoeneko jakitera eman ditu uztailaren 4tik 8ra, oro har Biotz Alai plazan eta Getxo Antzokian, jardungo duten jazz musikariaren izenak. Hala, udan Getxora hurbilduko diren itzal handiko jazz jotzaileak ondorendogok dira (jaialdiko egun bakoitzaren arabera, hurrenez hurren): Romano, Sclavis eta Texeier hirukotea, Jan Garbarek taldea, Charlie Handen Quartet West, Lee Konitz None eta Chucho Valdes piano jotzaile kubatar ezaguna buru duen boskotea. Ohi legez kontzertu nagusi horien

aurretik Talde Lehiaketaren parte hartzaileek jardungo dute, eta lehenengo egunetik eta azken aurrekora arte hurrenez hurren hauexek izango dira: Thinktank (Holanda), Andrew's Quartet (Errusia), Mr. Chacho (Espainia) eta People are Machines (Danimarka). Orain arte aipaturiko taldeek Biotz Alai plazan eskainiko dituzte kontzertuak (21:30). Bestalde, jazz talde gazteei begirako Hirugarren Milurtekoa ataleko kontzertuak Getxo Antzokian eta plazan burutuko dira (19:30). Amaitzeko, ezin aipatu barik utzi Jam Sessionak, marching bandak... Guzтира 15 kontzertuk osatzen dute Jazzaldiaren egitaraua. m

diskoak

Vivalaguerra
Standstill
Buena suerte



Autoedizioaren emaitza da talde kataluniarraren azken lana eta, adituen ustez, hardcore zalapartatsu daborduko ez da nagusi bere doinuetan. Oraingoan, melodiak eta emozioak azpimarratu dituzte Enric Montefuscok eta gainerako taldekideek. Ahotsa da, duda barik, diskoan deigarriena, baina arretaz erreparatuz gero, bestelako ñabardurak ere igarri daitezke.

Ostinato
Ost
Baga-biga



Urte luzez ezer kaleratu barik egon ondoren, zehazki sei, OST taldekoak indartsu datoz berriz ere Ostinato lanagaz. Sei urteren ostean, beraz, musikari bermeotarren hirugarren lana da honako hau eta beste behin ere, indarra, sendotasuna eta gogortasuna agertzen dute euren doinuen bidez. Koba estudioetan grabatu dute diskoa, 2001 eta 2006 urte bitartean.

Eutsi
Batzuk
Oinuka



Eutsi! Euskarazko filmaren inguruan osatutako diskoa da. 80ko hamarkada nahaspilatsuan kokatuta dago pelikularen muina eta orduko kantuarak osatu dute bilduma. Besteak beste, Kortatu, La Polla Records, Barricada, Mikel Laboa, Hertzainak, Ruper Ordorika eta Potato dira diskoan aurkitu ditugun euskal talde zein bakarlarri entzutetsuak. Askori oroimena astinduko digun bitxia.

kontzertua >

Lindergaard akorduan



Pio Lindegaardi gorazare egiteko kontzertua hartuko du urtero legez apirilak. Zornotzako danimarkarra jazzaren zale eta sustatzaile izan zen hamaika

herri eta urtetan zehar. Hala, Getxoko Jazzaldiko laguntzaile eta bultzatzaile nekazari urtero udalerririk egiten dion omenaldi kontzertua hilaren 28an izango da Areetako Andres Isasi Musika Eskolan (20:00, sarrerak 12 euro.) Jazz rockaren baju jotzaile esanguratsuenetako baten eskutik jasoko du aurtengorazare Lindegaardek, Stanley Clarke eta bera buru duen boskoteak jardungo dute.

Getxo Blues >

Buddy Guy izar nagusi

Getxo Nazioarteko Blues jaialdiak aukeratu du XIX. edizioan nor izan den egitarauko izar nagusia: Buddy Guy. Jaialdia ekainaren 8tik 10era egingo da eta Itzurbaltzeta/Erromoko Santa Eugenia plazara itzuliko da aurtengorik (sarrera ohi legez dohakoa da). George *Buddy* Guy (Lettsworth, Louisiana, 1936) "Chicago blues" delako estiloaren sortzaileetako eta ordezkari nagusietako bat da, talde arrakastatsu asko inspiratu dituen musikaria, esaterako Leed Zepelin eta The Rolling Stones. Lortu dituen 5 Grammy eta 23 W.C. Handy sariek bermatzen dute askorentzat "blues musikaren mito bizia" den artistaren maila.

etorri
eta
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Metro Plaza
apirilak 16

Erromo-Areetako kultur etxea
apirilak 19

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Oteiza hobeto ulertzeko

“**Quousque tandem...!**” edizio kritikoa argitaratu dute, **euskaraz** ere bai

“**Quousque tandem** *Catilina abutere patientia nostra?*” (Noiz arte jarraituko duzu Katilina gure pazientzia hainbeste baliatzen?), halaxe hasi zuen Zizeron (K.a. 106-k.a.43) ezizenaz ezaguna zen abokatu, idazle, eta politika gizon erromatarrek bere hitzaldi ospetsuenetako bat. Ostera, latin literaturagaz harremanik ez duen euskaldun askori beste bide batetik heldu zaie aldarria. Izan ere, XX. mendeko artearen bilakaeran berebiziko garrantzia izan zuten eskultore eztabaidazaleak, Jorge Oteizak, berba haiek aukeratu zituen, eskultura sortzeari utzi berritan, 1963an argitaratu zuen *Quousque tandem...! Ensayo de la interpretacion estetica del alma vasca* lanerako. *Quousque tandem...!* eta Oteiza askok lotzen dituzte, halere, liburuaren mamia ez dute gehienek gogoratuko, ezta ulertu-

«Pello Zabaletak euskaratu ditu edizioa eta Oteizaren testua»

ko ere. Lan “iluna” dela ahoz aho entzun da. Altxuzan dagoen Oteiza Museoak azaltzen duenez, “*bere eskultura ibilbidea esperimentazio estetikoan oinarrituta egon zen, formen desokupazioa eta eskulturaren hustea ikergai izan zituen. Diziplina arteko*



Jorge Oteiza (Orio 1908, Donostia 2003)

sortzaile alderdi askotakoa izan zen, eta ekarpen handiak egin zituen saiakera, poesia, antropologia, arkitektura eta hizkuntzalaritza esparruetan, eta kultura eta artea gizartekotzeko proposamenak ere egin zituen.

Orain dela gutxi Museoaren Fundazioak liburuaren edizio-kritikoa kaleratu du; zelan-bait lanaren argigarri izateko asmoa du. Liburuaren aurreko 5 edizioetako aldaerak batu eta oharrak erantsi dizkio Amador Vega filosofia doktoarek, eta Oteizaren beraren orain arte argitaratu bako oharrak ere erantsi dizkiote. Halaber, Pello Zabaletak euskarara ekarri ditu edizioa eta Oteizaren testua. ^m

liburuak



Sua falta zaigu
Katixa Agirre
Elkar

Gaztaroaren eta heldutasunaren arteko mugan gertatzen dira lan honetako zazpi istorioak. Katixa Agirrearen estreinako narrazio bilduma da honakoa. Bizitzaren tarte batean oso garrantzitsuak diren uneak islatu ditu idazleak: lehen zigarroa, ezkontza...



Atearen atzean
Antton Kazabon
Elkar

Irakasle batek maitemintzen den ikaslearen istorioa kontatzen du Antton Kazabonek bere lan berrian. Josu ingeleseko irakaslea iraitz abino hogeitaz zaharragoa den arren, azken hori bere bihotza zabaltzera ausartuko da. Ze ondorio ekarriko ditu maitasun horrek?

[kirola]

Alfredo Olabegoia Venturini > Ironman

“Hawaiiko Ironmana 40 urtegez egin nuen”



Munduko Duatloi Batzordeko lehendakari izan da Olabegoia 2000ra arte edo.

Igeriketaren bidetik eutsi zion Alfredo Olabegoiak (Lamiako, 1948) triatloiari, eta ostean Ironman probei. Algortan bizi den “burdinezko gizona” Heziketa Fisikoko irakaslea da. Igeriketako entrenatzaile izan da, Bizkaiko Igeriketa Federazioko zuzendari tekniko, Espainiko waterpolo taldeko entrenatzaile, Espainiko triatloiko hautatzaile...

Hastapenak horrela gogoratzen ditu Olabegoiak: “*Baionako eta Miarritzeko, hurrenez hurren, distantzia olimpikoko (1.500 m igerian, 30 km txirrinduan eta 10 km korrika) eta distantzia erdiko (2.500m-80km-20km) triatloietan parte hartu genuen igeriketa entrenatzaile batzuek 1985ean, gero Nizako Munduko txapelketara joan ginen (4km-120km-30km). Estudio Estadion elkarrizketatu gintuzten, aitzindariak ginen eta zorotzat hartu gintuzten.* Emaztea ingelesa zenez hizkuntza menderatzea lagungarri izan zitzaion eta “kazetari” lanetan ibili zen, “*atleta legez interesa nuelako, eta kirola ezagutarazteko.*” Horri esker babesleen begirada bereganatu zuten eta Santanderren lehen triatloi txapelketa antolatu zuten. “*1988an Hawaiiko finalerako sailkatzeko*

Alemaniko Ironmanera (3.800m-180km-42,2km) joan ginen eta Hawaiiko proba ere amaitu genuen! Hori zen garrantzitsua, orduan bete nituen 40 urte!”. Baina beste erroika batek dauka leku berezia bere oroitzapenen artean, Gernikako Munduko Duatloi txapelketako (1997) bultzatzaile eta antolatzaile izan zelako. “*Bonbardaketaren 60. urteurrenaren*

«Munduko Duatloi txapelketa (1997) Gemikan egitea lortu genuen»

harira “Bakea kirolaren bitartez - Peace to the sport” gutuna idatzi nuen nire emazteagaz, Munduko txapelketa Gemikan jokatzeko proposatu. Alkatea hasieran ez zen ausartu baina orduko kirol diputatu Juanjo Ziarrustaren laguntzaz lortu genuen aurrena egitea. Cancunen egin zen bozketan Belgrad hiriaz (Jugoslavia ohia) lehiatu ginen, eta irabazi! Zonagarria, benetan!” Datorren urtean beteko ditu 60 urte eta laster Kataluniako ironmanera “prestatzera” joango da, hurrengo urteetan Alemaniara edota Hawaiira joateko asmoa duelako. Burdinezkoa baino harribitxia da getxoztarra! ^m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 ^{M²}


KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacorfris, s.l.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUN
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Basilio Astulez > Leioako Kantika eta Kantoria abesbatzetako zuzendaria

“Gorputza eta ahotsa aldi berean sentitzen dute Kantikako eta Kantoriako kideek”



Leioako Udal Musika Eskolan behar egiten du Basilio Astulezek

Arte Ederretan lizentziatua da Basilio Astulez, baina bere lorpen handienak musikaren esparrukoak dira; izan ere, Leioako Udal Musika Eskolan kantu koraleko irakaslea ere bada. Han sortu ditu hainbeste poztasun eman dizkioten umeen Kantika eta Kantoria abesbatzak. Hain da handia lortu duten ospea, gure mugak ere gainditu egin dituztela. Aurten, besteak beste, Andaluzian eta Katalunian egongo dira.

—Mexiko, Islandia, Portugal... Umeentzat ez al da urrunegi?

—60 bat ume Mexiko DFtik gora eta behera... Lagun guztiek galdetzen ziguten ia zoratuta geunden! 2000n abesbatza sortu genuenetik Portugalen, Frantzia Islandian... egon gara. Askok mugitzen gara eta umeek behar izugarria egiten dute. Batetik bestera joateak bizitasuna ematen die. Gainera, abesbatzak itzelezko heldutasuna dauka orain, oso ohituta daude bidaiak egitera, ahotsa jagotera, atsedean hartzerara... Halere, beraie gehien gustatzen zaiena abestea da; azken batean, Mexiko, Islandia ala Kanada

dekoratuak besterik ez dira.

—Lehenengo, Kantika sortu zenuen eta gero, Kantoria.

—2000. urtean, Leioako Udal Musika eskolatik deitu zidaten eskolak emateko. Bertako ikasle guztiek kantu korala ikasi behar dute, baina orduan ez zegoen ikasitakoa transmititzeko talderik. Kurtso amaieran audizio bat egiten zuten eta hori zen dena. Nire ustez sinesgaitza zen horrelako zentro batean talderik ez egotea eta umeen abesbatza sortzea erabaki genuen. Hain zuzen ere, hori izan zen Kantikaren sorrera. Kantoria, berriz, hasierakoaren bigarren partea dela esan deza-

kegu; horretan, 17 eta 19 urte bitarteko neskek kantatzen dute eta.

—Zerk egiten zaituzte ezberdin?

—Agian, publikoak errazago erantzun dezake. Galdera gustatzen zait, ikusle bezala zeozer berezia nabaritzen duzuela suposatzen duelako. Abesteaz gain, koreografiak egiten ditugu eta batzuek alderdi horri ematen zaion garrantzian datzala uste dute; baina nire ustez, jarrera da. Ez da bakarrik dantzatzea, modu aktiboan jardutea ere bada, hau da, nahiz eta umeek abesti batean ez dantzatu jarrera hori nabaritu behar da. Egiten dituzten mugimenduak ez dira apaingarri soi-

«Umeak oso ohituta daude bidaiatzera eta ahotsa jagotera»

lak, gorputza eta ahotsa aldi berean sentitzen saiatzen dira. Beti pentsatu izan dugu musika korala entzuteko zerbait dela, ez ikusteko. Baina ikuskizuna sortu behar dugu.

—Zein da taldearen lorpenik handiena?

—Duda barik, kaleratu dugun DVDa. Ez da inoiz musika koragalaz horrelakorik egin, arestian esan bezala, normalean ikusi ez baina entzuten delako.

—Eta azken urteetan gehien hunkitu zaituena?

—Konzertu bereziak gogoratzen ditut. Entseuetan ere momentu polit asko bizi izan dugu. Umeen ahalegina nabarmenduko nuke, benetan hunkigarria delako egiten duten behar itzela.

—Etorkizuneko erronkarik?

—Gauden moduan segitzea. Orain proiektu berri batean sartuta gabilta. Gabonetako beste disko bat kaleratu gura dugu, *Gabon Kantika* deiturikoa. Horretarako, mundu osoko (Japonia, Suedia...) 16 bat musikagile-ri guretzako abestiak sortzea eskatu diegu. Hizkuntza ugaritan kantatuko dugu. m

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

Esakere > “Mauta-mauta diarduzu jaten”



Euskaldunek badakigu batzuten gauza ederrak sortuten eta pentsaten: pinturek, bertsoak, esakerak... Hori holan da, baia zeozetan lehelengok edo lehelengotarikok bagara yateko kontuten da: ugeri dire gure arten 'sake onekok', eta norbera yature ez bada, edo, ondiño txarrago, mizinkeriten badabil, ez dau berba onik entzungo lagunetatik eta etxeon agotik. Eta zer da akabu euskaldun batentzako? Ba norberak yan ez eta beste nonok norbera yate: Tartalo ta Gargantua, horretxek direz gure espantuk!

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran "Euskalerriaren Yakintza" behar handin topako doze.

Gureberbakere94

ZELAN ESAN

Berbetari lagunduteko (4)

Berbakere 86en eta 90en alkarrizketa erdiko berba eta esakeratxu batzuk ikusi genduzen, berbete erraztuteko eta lagunduteko erabilten direzenak. Gaur aurrera egingo dogu era horretako berbakaz.

Aurretik esanikora atzera etorteko

Ta **lehen esan doten lez** / esan dotzuten lez...

Ta **ze esaten ibili naz?** A bai, ba...

Errope barri eroste **dala ta**, komeni da yakite hau eta beste ...

Zuk esan dozunen **ganera**, nik hau eta hau pentsaten dot...

Gai bategaz aurrera egiteko

Modu horretan, erraz ikusiko dogu zein da urtenbide.

Eta horre(ge)itik, guk ezteku argi zein dan bide onena.

Gero / beste aldetik, kontuten auki behar dire kontu honek bere...

Honen osten ikusi behar da zein eritxi dauken auzokok...

Hau (ikus) eta gero, gariko gauza danak aitu behar direz...

Adibidek emoteko

Kontu asko dau hemen argitu barik, **esate baterako...**

Txalo asko eran daude bertso batzuk, **kasu baterako / kasureko...**

Horretariko kontuten kontuz ibili: **kasureko esangotsut...**

Gauza barrik gehituteko

Ez hori bakarrik, ganera beste honek kontuz dekozuz...

Ta **beste gauza bat** ondiño...

Ta **ahaztu baiño lehen**, beste hau esan behar dotsut...

Hori holan da, **baia beste aldetik**, beste honek kontuk dekozuz...

Hori egi da, **baia halan ta bere**, kontu egizu hau ta beste dekozule...

Egi da hori **bai eta** beste hau bere... Egi da hori eta hau **bere bai**.

Ez daude ondo ulertu **ez** hau **ez** beste hori.

Hori ez da holan, eta hau **bere ez**.

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-za
- Ortodontzia
- Periodontzia

BiGoberri 27, behea eskuinta
ALGORTA
94 430 76 96




Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBI



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarr 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Orburuak

saltsan

Aurrerantzean, UK aldizkariak plazaratu duen *Sasoian sasoikoa* poster ederraren filosofiari jarraituz, zenbaki bakoitzen denboraldiko produktu bati buruz hitz egin nahi dizuet. Denboraldiko produktuak merkeagoak eta osasuntsuagoak izaten dira beti. Bada oraingoa orburuen (edo alkatxofen) txanda da. Makina bat propietate osasuntsu dauzkate orburuek eta orain da euren garaia. Ohikoena orburuak egostea da. Belztu ez daitezen, zuritu eta gero eta egosi aurretik limoi uran sartu behar dira. Nik egosteko uran irin apur bat ere irabiatzen dut. Orburu bihotzak egosi eta gero era askotara presta daitezke. Esaterako, albardatu eta saltsa bizkaitarrarekin nahastuz (beheko argazkia), hotzean binagreta batekin, pernil punta batzuk frijituz eta orburu egosie gehituz... Hego Ameriketara orburuak asko egosi eta gero sardeskarekin txikituz pasta antzeko bat egiten dute, gero ogian gurina bezala (baina askoz ere osasuntsuagoa dena) erabil daitekeena. m



itsaso arana / jolastokikoa

Godello

mahatsa

Kalitate handiko mahats zuria da *godello*, oso aromatikoak, glizerina askoduna eta efektu berezia eragiten duen garratzasun gozoaren jabe. Bere Galiziakoa da eta Bierzo eta Valdeorras jatorri izendapenetan gehien lantzen da. Fruta berde, lore zuri eta belar aromak dauzka, anis eta mendafin (gure eskualdean, "batan" esaten zaio) ikutuekin. Bere indar aromatiko honez gain, bere beste ezaugarri azpimarragarrietakoa daukan izaera laktikoa da. Azken honegatik, hain zuzen ere, ematen dituen ardaoak oso erraz pasatzen dira ahotik, hau da, oso erraz edaten dira. Amaitzeko oso ardao orekatuak ematen dituela esan behar da. m



Laiak taberna

Txoko zabala eta giro ezin hobea



Argazkian, Jagoba

Ostalaritzan eskarmentu handia daukate Oihanek eta Jagobak. Besteen menpe lan egiteaz nekatuta, taberna propioa hartzea erabaki zuten. Hala, aurreko jabeekin berba egin eta Sopelako Laiak taberna zabaldu zuten: "Jabeak ezagutzen genituen eta gainera taberna oso ondo dago, bost urte ditu soilik". Aldaketa txiki batzuek aparte, terrazak aldatu eta lokala txukundu dute, gaintzakoak berdin jarraitzen du.

Adin guztietako jendea batzen da Laiaken: "Giro ezberdinetako jendea hurbiltzea nahi dugu eta, orain arte, lortu egin dugu". Herrigunean egoteak asko laguntzen dio horri: "Enparantza ondoan dago eta gurasoek pote bat hartzen duten bitartean umeak jolasten egon daitezke". Algortakoa den arren, Sopelako giroa ondo ezagutzen

du Jagobak eta ondo berba egin digu honi buruz: "Herriko jendea herriatik mugitzen da".

Infusio eta irabiaki naturalak, koktel bereziak, pintxoak... eskaintza zabala da asteke egun guztietan. Aste-akabuetan, horretaz guztiaz gain, kroketak, txokoak, eta rabak dituzte. Arteak eta kulturak ere euren lekua izango dute. Momentu honetan Maia Letamendia margolari eta diseinatzailearen lanak daude ikusgai. Hala ere, atek zabalik dituzte bere lana ezagutzera eman nahi duen edonorentzat.

Pantaila erraldoia daukate kirol eman-kizunetarako. Beraz, lehoiek jokatzeko dute, "bandera kanpora eta animatzerak!". m

Bentatu 2, behea. Sopela
Tel.: 94 676 03 28

ARTAZA ETXEA
jatetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador Goieztzi

- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nomberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Guez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditu-

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi**
ALGORTA
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

GOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

| | |
|-------------------|--------------|
| Orduña Mendatea 1 | Telletxe 13 |
| T: 430 22 13 | T: 460 02 88 |
| GETXO | ALGORTA |

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Familia arteko harremanek garrantzi handia hartuko dute hilabete honetan, elkarrekin momentu ahaztezinak biziko dituzue eta. Hala ere, profesionalki aldaketa nabarmenak datoz, horregatik zeure jarraera baretu eta edozein eztabaida saihestu.

AITZURRA


t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Maitasunak gero eta gehiago harritzen zaitu, sekula egiteko gai izango ez zinen erokeria bat egingo duzue zure alboan nahi duzun pertsona horrengatik. Honek zer pentsatu emango dizu, orain arte erridikuluia iruditzen zitzaizun ikuspuntua aldatuko duzu.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zenbat aldiz esan dizute adinduek esaten dutena kontuan hartu behar dela? Oraindik ez duzu hori ikasi. Txepel aurpegia duenik ezin da ukatu; dena den, leporatzen diozun guztia ez da egia, eta badakizu, gainera.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Lan eskaintza interesgarri bat egingo dizute, baina baldintzak direla-eta, hainbat zalantza izango duzu: irakurri letra txikia! Lagunakaz haserretu zara; izan ere, beti eurek gura dutena egin behar izaten duzu, eta nazkatu zara dagoeneko.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Urte berria bizitza berria esatera ez ezazu serioegi hartu horretara ohituta bazaude ere. Ezin da egun batetik bestera guztiarekin hautsi eta bizitza berria hasi. Buruan aspaldian bueltaka duzun horrek zorutuko zaitu, onar ezazu eta aurrera egin.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Badakigu errutinan murgildurik bizitzea oso erosoa dela, baina zu jadanik pasatu zara. Mugit zaitez berandu izan baino lehenago. Bikoterik gabe bazaude ez kezkatu ze hilabete honetan ere ez duzue zure laranja erdia topatuko eta.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Haize barriak behar dituzu, zeure herri-rik kanpo mundu berri oso bat baituzue ezagutzeko. Beraz, badakizu: ez ezazu birritan pentsa, maleta prestatu eta bidaiatu! Hala ere, kontuz ibili: diruak zeure eskuetan gutxi irauten du eta!

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Hilabete honetan goibel samar ibiliko zara, zure haurtzaroko hainbat kontu burura etorriko zaizkizu eta. Hauek gainditzeko ondo etorriko zaizu zure eguneroko bizitzatik irten eta lagun berriak egitea. Isolatuz ez duzu ezer lortuko!

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Eguraldia bezain goibel zabilta, benetan horren sustria zer dagoen bilatu beharrean zaudete arazoa gaintu ahal izateko. Aspaldi honetan buruan duzun maitasun galdu hori agertu da eta denboran atzera eginez aurkituko dituzue egoera gaintzeko oinarriak.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Bai ala ez? Beti zalantzan zabilta eta horrekin min handia egiten ari zara zure inguruan. Utzi jolasteari eta hartu behingoz erabakiak. Konpromisoari diozun beldurra gaintu berandu izan baino lehen.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Berarekin egon behar duzula jakiteak gaixo ipintzen zaitu; hala ere, ahalegintxo bat egin beharko zenuke. Azken hamabost egunotan gauza bera errepikatu duzu: "Nekatuta nago". Ea noiz hartzen dituzun oporrak!

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Osasuntsu sentitzen duzu zeure burua, baina esperientziak irakatsi dizun bezala hotza ez da zeure lagun onena. Badakigu janzkerarekin atentzioa deitzea gustukoa duzula, baina baduzu garaia udako arropa zokoratzeke. Zeure osasunak eskertuko dizu eta!



mungia

oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

**KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA**



KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Udal hautetsia. 2. Lurreko kontinentea. R bikoitza. 3. Frantziako hiri-burua. Urno, heldu. 4. Emakume izena. Hego Amerikako mendietan bizi den hugaztun belarjalea. 5. Barazki mota. A bikoitza. Da, ingelesez. 6. Ukitua. 7. Kontsonantea. Mordoila. 8. Ipurdi. Bokala. Kontsonantea. Röntgen. 9. Donostiako auzoa. Meatzeak. 10. (Errep.) Fruitu tropikala. Izadiko baliabideetatik lehengaiak lortu.

Goitik behera

1. Txalburuak. 2. Apez musulmanak. Arrazoi. 3. Erabiliko nuke. 4. Gaixo. Bukatu. 5. Modu. Erbioaren ikurra. Einstenioaren ikurra. 6. Goragalea etori arte ase. Kanpo. Kontsonantea. 7. Pilpira. Musika nota. 8. Abederako azkeneko letra. Masurioaren ikurra. Iritzia. 9. Zabalduak. Kanpo. 10. Belagua aldeko mendia. Uztai.

Soluzioak

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | T | V | I | T | S | U | O | K | |
| K | V | E | M | E | T | E | V | | |
| R | T | V | I | K | Z | U | | | |
| V | K | S | V | D | R | V | L | R | |
| V | U | D | N | E | M | I | K | U | |
| S | I | V | V | V | B | V | B | V | |
| V | K | A | L | P | A | L | N | V | |
| L | M | E | L | S | I | S | P | A | R |
| R | R | A | K | A | R | I | K | A | |
| V | Z | I | A | T | Z | I | A | | |



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Irlandar peto petoa
- Politika gizon errepublikarra
- Denon ahotan ibili da azken boladan

> Aurrekoaren erantzuna: Jose Manuel Esnal Mane

> Irabazlea: Alvaro Bergaretxe *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:


UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



JOSE MANUEL AMUTIO TOLETE-K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Bost algortar Kolonbiarako bidean, 1956an

Bost baino, algortarrak lau zirela argitu beharko genuke, izan ere, erretratuan agertzen den bat Berangoko semea zen, Andres Rodriguez Palaparru (ezizena, bere baserriaren izenetik zetorkion). 1956ko martxoaren 12an Bartzelonatik Kolonbiarantz abiatu ziren bostok Marco Polo izeneko italiar posta itsasontzian. Hilabetetik gora eman zuten bidaia hartan. Bidaia gehienak italiarrak eta portugaldarrak ziren, baina euskaldunekin ere egin zuten topo gure lagunek, Nafarroako fraide talde batekin hain zuten ere. Madril aldeko hiru lagun ere ezagutu zituzten, zoritxarrak eroan zituenak. Madrildar hauek Kolonbiara ailegatu eta Calirako bidean autobusez zihozazela butano bonbona batek eztanda egin eta bertan hil ziren guztiak.

Gure bost lagunek gorriak ikusi zituzten Kolonbian, batez ere hasieran. Ez zuten hemendik agindu zitzaiena inon aurkitu, batez ere hemen Kontsula zenak esan ziena (honekin oso oroitzapen txarra daukate gure lagunek). Apurka-apurka atzera etorri ziren gure bost lagunak herrira, gehien iraun zuenak zortzi urte eman zituen Kolonbian. m

Ezkerretik eskuinera: Adolfo Bretos (GB), Andres Rodriguez Palaparru (GB), Joaquin Arza (GB), Marcos Bretos Markitos, Jose Manuel Amutio Tolete.

AITOR GOROSABEL > Su Ta Gar taldeko kidea

“Askatasunaren ikur bezala ikusten ditut Ameriketako indiarrek”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Buru gogorra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Ameriketako indiar bat protagonista den edozeinetan. Askatasunaren ikur bezala ikusten ditut, zeukaten gauza preziatuena zen askatasun hori kendu zieten arren.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?
Euskal Herriaren alde egin duen edozein.

Ohitura txarren bat al daukazu?
Erretzea, nahiz eta ez dudan asko egiten.

Aitor dezakezun bizio bat.
Surfa.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?
Marokora. Hain hurbil eta aldi berean hain urruti eta ezberdin. Benetan leku maitagarria.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?
Dokumentalak grabatzea gustatuko litzaidake, mugikortasunagatik eta naturaren aurpegi ezberdinak ikusteagatik

Zein da zure ametsetako bat?
Dihardudanean luzaro jarraitu ahal izatea.

Ikusi duzun azken filma?
Los doce del Patibulo. Asko gustatu zait, aspaldiko filmek, orokorrean, bestelako sakontasuna daukate.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?
Maite nauen jendea gabe.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?
Momentu honetan, Zarautz. Surfa, aisialdia, ama, jendea, zabaltasuna...

LABURREAN— Eibarren jaio zen Aitor Gorosabel Garai 1970ean. Musika munduarekin lotura hadia izan duten lau senideengandik hirugarrena da. Aitak eta amak, musikan arituak ere, beti animatu izan zituzten seme-alabak musika ikasketak egitera. Bere anaiak bezalaxe, lehen pausoak punkaren inguruan eman zituen Aitorrek. Baina 80ko hamarkadaren amaieran, ikastola garaitik ezagutzen zituen Asier, Borxa eta Xabirekin batu eta Su Ta Gar taldea sortu zuten. Euskaraz egindako metalaren aitzindari izateaz gain, musika mota honek gure artean inoiz eman duen talderik handiena ere bada. Gainera, Euskal Herrikan kanpo ere jarraitzaile asko lortu dituzte, esaterako jadanik klasikoa den *Jo Ta Ke* kantarekin.

SASOIAN SASOIKOA

| | U | O | M | A | M | J | A | S | O | A | A |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | | | |
| 11 | | | | | | | | | | | |
| 12 | | | | | | | | | | | |
| 13 | | | | | | | | | | | |
| 14 | | | | | | | | | | | |
| 15 | | | | | | | | | | | |
| 16 | | | | | | | | | | | |
| 17 | | | | | | | | | | | |
| 18 | | | | | | | | | | | |
| 19 | | | | | | | | | | | |
| 20 | | | | | | | | | | | |
| 21 | | | | | | | | | | | |
| 22 | | | | | | | | | | | |
| 23 | | | | | | | | | | | |
| 24 | | | | | | | | | | | |
| 25 | | | | | | | | | | | |
| 26 | | | | | | | | | | | |
| 27 | | | | | | | | | | | |
| 28 | | | | | | | | | | | |
| 29 | | | | | | | | | | | |
| 30 | | | | | | | | | | | |
| 31 | | | | | | | | | | | |

FRUTA-DENDAN ere euskara

FRUTA-DENDAN ere euskara

Kiborrak
 hortamirudi hauek
 jeneratuzten saltokiak
 FLUTAS GETIBO, ITA GETIBO FLUTA-
 DENDA, NEGURI FLUTA-DENDA,
 MENTURUA FLUTA-DENDA, LA
 BOUTIQUE DE LA FLUTA, unibario
 ANTIKUA, ISABEL FLUTATEGIA,
 COSTA FLUTATEGIA,
 ALIMENTACION
 FERNANDEZ, LINA
 FLUTA-DENDA,
 FLUTAS LAFA,
 PATIBO FLUTA-DENDA,
 CHAQUEVA VILLAMONTI,
 CAPACHOS 1, CAPACHOS 2,
 MABE FLUTA-DENDA.



informazio gehiago nahi izanez gero,
 deitu euskara zerbitzura
 94 466 00 10-11 telefonotara
 euskara.teknikaria@getxo.net